

GUaiXe.net



Igandean, goizaldeko 2:00etan ordu aldaketa egingo da



Eneko Lazkozek bosgarren bukatu du Nafarroako Bertsolari txapelketan, Txapelketa Nagusira sailkatzeko 2 punturen faltan



Kultura >> 15



Etxeberriko Kontzejuak frontoia estali nahi du

100.000 euroko aurrekontua du lanak

>>7



Langileek asteazkenetan, 11:30ean, azokan kontzentrazioa egiten dute.

Olatzagutiko Udalak 1,7 milioiko aurrekontua onartu du

>>7

Lazaro Echeverrian hiru aste greban

>>8

Ekolabela eman diote La Burundesa enpresari

>>7

Hiru Mendizerrak mendi martxarako guztia prest

>>13

Udalen diruarekin hornituko dira liburutegiak

>>9



Urbasako saroiko siman 6 pertsonen arrastoa

>>9



Embutidos Arbizu txistorra ekologikoa ekoizten

>>7



Bigarren aukera makina bat objektuendako Irurtzunen

>>5



Erikaren ttilikak, Suarezzen haurrendako azken lana

>>14



ZORION agurrak



Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foruen Plaza 23-1 • Irurtzun: kate informatika, Bi ahizpak, 9 (atzea) • Ordainketa, Guaixeren bulegoan edota 3035 0018 47 0181012564 kontu zenbakian ingre-satuta egin daiteke.

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!



Jarraitu gaitzazu

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan!

LEHALSA

Leiho-Isolatzailak • Alumnioa-P.V.C-Mistoak

Tailerra eta erakusketa
Zuntaipe auzoa z/g (N1 zaharra), Altsasu
Telf.: 948 468 559
info@lehalsaventanas.com
www.lehalsaventanas.com



Olatz Arregi Martin

Berehala iritsiko da apirilaren 2a, zure urtebetetze eguna. ZORIONAK! Eta sei muxu, dituzun urteak bezala. Familia guztiaren partez.



Ana Arza

40 urte eta beti bezain alai. Alaba, ama eta emazte maitagarriari ZORIONAK! Muxu handi bat, etxekoak.



Garazi Garasa Guerrero

ZORIONAK pitufa!! Eskerrik asko nire bizitzan ego-teagatik eta beti egonen zara, maitea. Maite zaitut. Manoli.



Garazi Garasa Guerrero

ZORIONAK maitea!! Faltan sumatzen zaitut... izugarri. Hemeretzi muxu handi. Maite zaitut. Maria Josefa izeba.



Garazi Garasa Guerrero

ZORIONAK sagutxo!! Zure falta asko nabaritzen dut baina beste aldean elkar ikusiko dugula espero dut. Muxu asko. Joseba.



Garazi Garasa Guerrero

ZORIONAK printze-sa!! Muxu asko denon partez. Aita eta ama.



Garazi Garasa Guerrero

ZORIONAK Garazi!! Nire ondoan beti zaude. Eneko.



Alfredo Berasategi

Altsasuko Barçako zalerik handienetarikoa batendako, ZORIONAK zure 3 nesken partez!!



Paula Igoa Reparaz

ZORIONAK Paula!! Astear-tien 7 urte bete zenituben. Muxu handi bet fameli guzian partez.



Ihintza Mendoza Rodrigo
ZORIONAK Mimixi!!!Ea zure lehendabiziko urtebetetze egunean primeran pasatzen dezun desiratzen degu zure gurasoak eta anaia.
MILAKA MUSU.



Jose Luis Garziandia

Osaba, ZORIONAK zure 80 urtebetetzean!! Alain eta Aitorren partez.



Alain Alberdi Garziandia

ZORIONAK zure 13. Urtebetetzean!! Jarraitu hain jatorra orain arte bezala. Aitabxo, amabxo eta Aitorren partez.



Maialen Galeano Martin

ZORIONAK printze-sa!! Izugarri maite zaitugu. Muxu handi bat Aita, ama eta Ibanen partez.

marsuak-apirilak

28-11

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.net

Zinema

Un plan perfecto. Martxoaren 29an, ostiralean, 22:00etan eta martxoaren 31n, domekan, 20:10ean Altsasuko lortia kultur gunean.

Blackie & Kanuto. Martxoaren 31n, domekan, 17:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.

Surfak zoraturta. Apirilaren 3an, asteazkenean, 18:00etan Irurtzungo kultur etxean.

Las aventuras de Tadeo Jones. Apirilaren 4an, ostegunean, 18:00etan Irurtzungo kultur etxean.

Pura Vida. Apirilaren 5ean, ostiralean, 20:00etan Irurtzungo kultur etxean.

Las sesiones. Apirilaren 5ean, ostiralean, 22:00etan eta apirilaren 7an, domekan, 20:10ean Altsasuko lortia kultur gunean.

Lily la princesa hada y el unicornio II. Apirilaren 7an, domekan, 17:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.

Mendi irteera

Ziordia-Sorozarreta. Apirilaren 2an, domekan, goizez. Altsasuko Mendigoizaleak.

Txirindula irteerak

Urederrako iturburua. Martxoaren 31n, domekan, 8:30ean Altsasuko Zumalakarregi plazatik. 9:20ean Bioitza kanpinetik. 54 km. **Burunda Mendi Bizikleta taldea.**

Hirumuga. Apirilaren 7an, domekan,

8:30ean Altsasuko Zumalakarregi plazatik. 43 km. **Burunda Mendi Bizikleta taldea.**

Erakusketak

Ura Sakanan. Martxoaren 31ra arte Irurtzungo Tahonan eta Pikuxarren. Irurtzungo pintura tailerreko emakumeek eginak.

Oihanetik itsasora. Apirilaren 2tik 21era, 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara, Altsasuko lortia kultur gunean.

Tailerrak

Makilajea. Apirilaren 2an, 3an eta 5ean, asteartean, asteazkenean eta ostiralean, 18:00etatik 20:00etara Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean. **5 €.**

Makrame. Apirilaren 6an eta 7an, larunbaten eta igandean, 18:00etatik 20:00etara Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean. **3 €.**

Bestelakoak

Estrategia txapelketa. Martxoaren 28an, ostiralean, arratsaldean Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

Mus Txapelketa azkarra. Martxoaren 28an, ostiralean, 22:30ean Irurtzungo Pikuxar euskal txokoan. **Ordu erdi lehenago izena eman.**

Mahai jolas txapelketa. Martxoaren 30ean, ostiralean, arratsaldean Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

Atez ateko bilketa puntuen



proposamena. Apirilaren 4an, ostegunean, 19:00 Irurtzungo eskolan. Apirilaren 10ean eta 11n, asteazken eta ostegunean, 19:00etan Etxarri Aranazko kultur etxean.

Haurrendako jolas parkea. Apirilaren 5ean, ostiralean, 11:30etik 13:30era eta 16:30etik 19:30era Etxarri Aranazko frontoian.

Elkartasun afaria. Apirilaren 6an, larunbatean, 21:30ean Irurtzungo larxto elkartearen. **Itxipuru.**

Deialdiak

Euskal Presoak Euskal Herrira!

Martxoaren 28an, ostiralean, 20:00etan, Irurtzun, Uhartea Arakil, Lakuntza, Arbizu, Etxarri Aranatz, Bakaiku, Altsasu eta Olaztin, elkarretaratzeak.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Martxoaren 31n eta apirilaren 7an, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

Hauteskundeak orain! Heldu aldaketari. Apirilaren 3an, asteazkenean, 19:00etan Altsasuko lortia kultur gunean. **EH Bildu.**

Hartu zure konpromisoa! Apirilaren 5ean, ostiralean, 19:00etatik

21:00etara Altsasuko Foru plazan. **EHE.**

Euskal Presoak Euskal Herrira! Apirilaren 5ean, ostiralean, 20:00etan, Irurtzungo, Lakuntzako, Arbizuko eta Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzeak.

Sakanako Langabetuen Asanblada. Apirilaren 8an, astelehenean, 15:30ean Altsasuko Gure Etxea eraikinean.

Herri gaudeketarako sinadura bilketa. Apirilaren 12ra arte, astegunetan, 10:00etatik 14:00etara Etxarri Aranazko udaletxean. Etxarri 2012+1 ekimena.



Apirilaren 12tik aurrera **Guaixea soilik bazkideek jasoko dute** etxean, hau da, **Guaixe pegatina dutenek**. Gainontzekoek herriz-herri zehaztuko diren gunetan (kioskoak, okindegiak...) jaso beharko dute Guaixea.

**Guaixea etxean
jasotzen jarraitzeko,
bazkide
egin zaitetz!**

Deitu **948 564 275** edo **948 562 107** telefonoetara



Benjamin Zufiaurre Goikoetxea

astekoa

NON GAUDE - NORA GOAZ -

Alde egin edo dimititu

Gaur egun dagoen politiko giroan, nor dimititzen du egiten duena lotsagarri delako? Amerikako Estatu Batuetan, Inglaterran e.a., sexuari lotutako istiluak dimisioak ekartzen dituzte. Vatikanon aita santuak dimititu zuen. Italian italiarrek aukeratu ez zuten presidente

Montik dimititu egin zuen. Alemanian, tesi plagiaturak dimisioak ekarri dituzte ere. Eta beste hainbat tokietan, dimititu egiten da ardura politikoak eredu adibideak ezemateagatik, gezurretan ibiltzeagatik, azkarregi gidatzeagatik...

Baina hemen inoiz eta inolaz

ere. Popularrak gezurrekin igoziren eta gezurrekin jarraitzen dute. Sozialistak hanka sartzen eta sartzen ari dira, eta berdin. UPNen batzuk beste batzuen kontra daude, eta bitartean, Nafarroa behin behineko Gobernuen alternatibarik ez, zeren, nola onartu euskal sentsibilita-

teko gobernu bat? Frankisten eta karlisten herrialde honetan, subiranotasun eskusiboa ulertzen den bezala, nola aldatu subiranotasuna banatzera erabakitze eskubidea lortzeko? Bestalde, krisi garaian, erabakitze eskubidea argudio bakar bezala erabiltzen badugu, nola suer-

tatzen ditugu anitzako gizarte dibertsoak erabakitze arnasketak normalizazio bidean sartzeko? Subiranotasuna ez dator bakarrik. Beste ekintza politiko batzuk behar dira, eta aurrera jarraitzekotan ondo jokatzeko prest ez daudenek dimititu beharko lukete.

Eskatu KORRIKako argazkiak
Kiki argazki dendan

guaixe.net **nik** Iortia plaza • Altsasu • 948 46 90 23



barrutik kanpora

Otsaila - Martxoa

Angel Figeroa hil da; etxean preso zeukaten gaixo larria: agureta ohore. / 12 urte Joxe Agirre torturaz erail zutela; 16 urte Basajaun eraila aurkitu zutela; gerra zikinak dirau / Preso sozial bat hil da Araban / Biluzik, manta ziztrin batekin eduki dute 7 eguez ziegan isolatuta Aranburu, eskuburdinekin eraman zuten bisitara; jipoitua izan da beste preso bat: gehiegikeriek diraute nagusi kartzelatan / Istripu berri

bat: aurten 2.a / bizitza guztirako 4 kondena berri: 8 dira aurten, 94 denera / Bi atxilotu Frantziatik: konponketarako oztopoak / 9 izan dira aske geratutakoak: kondena beteta edo bermekin.

Oihan: Urtebetetzea izan da, zorionak; bigarren epaiketa izan du, beste bi geratzen zaizkio: arazo politikoaren konponbidea eskatu zuten. Asier eta Luis: Dueñas eta Curtisen berritza, epaiketan lekuko izan ondoren. Asier

eta Hodei: azterketak izan dituzte. Luis: zimutz edo txintxeen ziztadaz josita esnatu zen Valdemoron. Hodei: hiru fruta ale eduki ordez bost zituelako bakartu egin dute.

Norvegiak bidali egin ditu irtenbide demokratiko baterako negoziatioetan ari ziren hiru etakide: kezkagarria, normalizazioa eta presoaren etorkizuna ezinbestean elkarlotuta baitoaz. Bilbon eta Iruñean ospatu da Foro Soziala, non

parte hartu duten Euskal Herriko eragile eta alderdi gehienek, beraiekin herri gatazketan aritutako bitartekari ezagun nazioartekoak: denek jartzen dute ezinbestekotzat presoaren arazoa konpontzea. Estrasburgoren bizi guztirako kondenari buruzko ebatsia edozein dela, ausart jarraitu beharko dugu, nabaria delako Estatuaren itxikeria. ETXEAN NAHI DITUGU.

Sakanako ETXERAT



gutunak

Atal honetan ahalik eta iritzi gehienek tokia izan dezaten **1.500 karaktere** (espazioekin) baino gehiago duten gutunik EZ DA ONARTUKO. Karaktere kopuru horretatik gorako gutun

gutunak LABURTU egingen dira. Gutunaren izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Gutunak asteazkeneko goizeko

hamarretarako egon behar dira gurean; bestela, ez da aste horretan publikatuko. Guaixe aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien

erantzukizunik. Zure iritzia helarazteko: **Foruen plaza 23, 1 Altsasu; gutunak@guaixe.net edo 948 564 275 telefonoa.**

gora/behera

Berrerabilpena
Itxipuruk sustatutakoak emaitzak ematen jarraitzen du.

Krisia
Jende askok ez ditu oporrak lasai hartuko.

Noiz arte jasango dugu?

Arturo Carreño Parras,
Altsasuko IUko zinegotzia

Ez dira irudipenak, errealitateak dira. Herrialde hau txiki-txiki eginda dago. Banku eta hipoteka iruzurrak, usteldutako politikariak eta enpresari handiak; prebrikatzaileak eta funts publikoak bidegabeki erabiltzen dituz-

tenak, gai goi mailan nola tamaina ertain eta txikiko udalerrietan; murrizketa izugarrienak gizarte eta oinarriko beharren arloan: osasuna, hezkuntza, etxebizitza eta lana. Sei milioi langabetu eta ia bi inolako prestaziorik gabe. Milaka pertsona Caritasera eta gizarte jangeletara joaten. Askok jatekoa edukiontzietatik jasotzen. Etxe-gabetze-

ak neurri gabe eta 5 milioi etxebizitza hutsik.

Hori eta argia ikusten ez duen gehiago gertatzen da 17 erkidego eta 52 probintzia dituen herrialde honetan. 17 erkidegoetatik erreketari gutxi egiten diote izkin. Nafarroa, Gaztela-Mantxa, Madril, Mallorca, Valentzia, Euskadi, Galizia eta Andaluzia eguneroko daude hedabideetan ustel-

keria eta gorbenu-txarragatik.

Inork ez dio konponbiderik jartzen gaitz honi. Trileroak, toko-motxoa, lapurra eta estanpitarren iruzurra, atzera ere hemen dira. Gizarteak noiz arte jasan behar du. Justizia ere zalantzan dago. Noiz arte. Sines-tezina baina hala da, noiz arte. Zer gehiago ikusi behar dugu. Noiz arte.

Guaixe

ARGITARATZAILEA: Bierrik Fundazioa • bierrik@guaixe.net

GUAIXE: Foru Plaza 23, 1. solairua, 31800 ALTSASU •

948 564 275 • 948 562 107 • guaixe@guaixe.net

PUBLIZITATEA: Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.net •

Maria Saez de Albeniz Bregaña • publizitatea@guaixe.net

• 948 564 275

Erredakzio burua: Alfredo Alvaro Igoa

Erredakzioa: Maider Betelu Ganboa

Maketazioa: Ainhoa Etxeberria Pikabea

Laguntzaileak: Amaia Amilibia Salgado, Ainhoa Urretagoiena

Arruabarrena, Gixane Andueza Goikoetxea eta Erkuden Ruiz

Barroso

Zuzentzailea: Maria Luisa Mendia Zelaia

Lege gordailua: NA-633/1995

Tirada: 4.500 ale

LAGUNTZAILEAK:

Mank
s a k a n a



URBASA TABERNA OMENDUA: Nafarroako Ostararitz Enpresa Txikien Elkarteak bazkide gisa 25 urte daramaten kideak omendu zituen asteartean. 16 omenduen

artean Ziordiko Urbasa taberna zegoen. 25 urteen oroigarri gisa plaka bana jaso zuten omenduek.

sakanerria >>

SAKANA



Topagunearen batzarra.

Euskaltzaleak aktibatzea eta antolatzea helburu

Topaguneak, euskara elkarten federazioak, larunbatean batzarra egin zuen Durangon. Gizarte mugimendu modura artikulatzen jarraitzeko kohesioan eta gizarte eraginean lehentasunak jartzea erabaki zuten Topaguneko kideek. Horien artean daude Irurtzungo Aizpea eta Altsasuko Kima euskara taldeak eta Bierririk fundazioa. Topaguneak bere jardueraren muinean jarri du euskaltzaleak aktibatzea eta gizarte mugimenduan antolatzekeginkizuna. Horregatik, larunbatean izena aldatzea erabaki zuten, Euskaltzaleen Topagunea deitura hartzeko.

Izen aldaketa 3 urteko hausnarke-ta epe baten ondoren etorri da. Aurtan, besteak beste, euskaltzaleen ekimen eta eragina handitu, mugimenduen transmisio eta barne formazioan inbertitu eta Topaguneko abian dituen jarduerak eutsiz, bere eragina areagotzea izanen dira mugimenduen urteko erronka nagusiak. Testuinguru ekonomiko ezegonkor honetan, gizarte ekimenaren garrantzia inoiz baino handiagoa dela nabarmendu zen batzarrean eta babesa areagotzeko deia egin die mugimenduak herritar eta erakundeei.

Mikel Irizar presidente den zuzendaritzan Bierririk fundazioko kudeatzaile Ainhoa Urretagoiena bokala izanen da.

Irurtzun

Senegalgo kontsultategirako bilketa

Itxipuruk 9 urtetan milaka objekturi bigarren bizitza bat emateaz gain elkartasun proiektutara bideratu dituen 45.306 euro lortu ditu

Eguraldia lagun makina bat jende pasa zen igande goiz-eguerdian Irurtzungo Plazatik. Itxipuru taldeko kideek mahaietan jarritako liburu, CD, bideo-jolas, arropa, elektrotresna eta bestelako objektuak poliki saldu ziren, guztira 1.128 euro bilduz. Diru kopuru horri apirilaren 6an Iratxo elkartearen eginen den afarian ateratakoa gehitu beharko zaio. Izena emannahi duenak 4ra arteko epea du; Iratxo, Pikuxar edo Moncloatik pasa beharko du (18 euro). Irurtzunen jasotako diru guztia Senegalgo Darou Salamen kontsultategi anbulatorioa zabaltzera bideratuko da.

Itxipuru taldeak 2004ko abenduan antolatu zuen aurreneko bigarren eskuko azoka. Irurtzundarreke etxean duten, erabilerarik ematen ez eta egoera onean dauden gauzei bigarren aukera bat emateko sortu zen azoka: "Bizi garen gizarte kontsumista horrek ezartzen duen erabili eta bota jarrierari ikuspegi kritikoa". Ideia horri fidela zaio azoka. Krisiarekin batera, azokako kontsumitzaileak laguntza emategatik beharrak estaltzeko premia asetzerara pasa dira.

Urte hauetan azokatik eratorritako bestelako ekimenak ere garratu ditu Itxipuruk, beti ere, bererabilpenaren ikuspegia galdu gabe. Hala sortu ziren liburu eta jostailu trukeak, esaterako. Pixkanaka taldera jende gehiago bildu da, baita irurtzundar berriak ere.



Liburuez gain makina bat objekturi bigarren aukera bat eman zien azokak.

Itxipururen proiektuak

Urtea	Hilabetea	Proiektua	Dirua
2004	Abendua	Argentinako Huangelengo ospitalerako 5 ordenagailu.	3.291
2005	Apirila	Buenos Airesko Don Torcuatoko biltegi bat eraiki eta labe industrial baterako	515
2005	Garagarzaroa	Mexikoko Coatzacoaleko Irsharai adingabeen zentroarendako.	400
2005	Lastaila	Saharako Tinduf eremuan garraio base integrala.	543
2005	Abendua	Buenos Airesko Torcuato auzotik elikagaiak erosteko.	663
2006	Apirila	El Salvadorreko Cinquerako La Escopetako ikastetxea konpontzeko	1.908
2006	Garagarzaroa	Saharako Tinduf eremuan garraio base integrala.	1.491
2006	Iraila	Argentinako Huanguelenen behar bereziak dituzten pertsonendako eskola	1.607
2006	Azaroa	Buenos Airesko San Damian auzoko osasun zentroa laguntzeko	2.532
2007	Apirila	Peruko Urubambanen Down eta bestelako gaitzak dituzten haurren programarako	2.610
2007	Garagarzaroa	Argentinako Santa Anitako landa ospitaleko azpiegitura	1.320
2007	Iraila	Errusiako Yuzhnouralsk hiriko Iuzko-Ural sk umezurtegia laguntzeko	1.869
2007	Abendua	El Salvadorreko Cinquerako ingurumen eta garapen egitasmoa garatzeko	2.649
2008	Apirila	Buenos Aires Hurlingham hiriko San Damian auzoko ospitalerako	2.476
2008	Iraila	Argentinako Santa Anitako landa ospitalea laguntzeko	2.277
2008	Abendua	El Salvadorreko San Jacintoko kaleko umeak hartzen dituen zentrorako	2.404
2009	Apirila	El Salvadorreko kaleko haurrak laguntzeko	2.359
2009	Iraila	Brasilgo Fortalezako Barra de Ceara auzoko neskatoak laguntzeko	1.911
2009	Azaroa	Paris 365 jangela solidarioa (arropa soilik)	184
2010	Apirila	Ruandako Kabeza eskualdean etxeak eraikitzea bideratuko dira	2.200
2010	Iraila	Iruñeko Paris 365 jangela solidarioarako	2.302
2011	Apirila	Ruandako nutrizio zentro batera bideratuko	2.138
2011	Azaroa	Argentinako San Fernandezko La Esperanza auzoan hezkuntza proiektu bat	2.199
2012	Apirila	Irurtzungo kulturartekotasun programa aurrera egiteko bideratu da ateratakoa.	1.033
2012	Lastaila	Hondurasko Tegucigalpako auzo baztertuko 2 eskoletako jangeletarako	1.297
2013	Martxoa	Senegalgo Darou Salamen kontsultategi anbulatorioa zabaltzeko	1.128*
Guztira:			45.306

*6ko afarian aterako den dirua falta da.

Bazkide zozketa

Marsuko sarituak:

Jordi Arbizu Perpiña (Iturmendi)

2 sarrera Ekainberri kobazuloetarako + Trimán Navarra 2 sarrera

Edurne Otxoa Bengoetxea (Urdiain)

Katxiporreta 1 arropa + Trimán Navarraren 2 sarrera

Katrin Ginea (Arbizu)

Katxiporreta 1 arropa + Trimán Navarraren 2 sarrera

J Ramon Eizagirre (Etxarri Aranatz)

Katxiporreta 1 arropa + Trimán Navarraren 2 sarrera

APIRIBILEKO SARIAK:

- 2 SARRERA EKAINBERRI KOBAZULOETARAKO + 2 SARRERA TRIMAN + ELHUYAR FUNDAZIOKO LIBURU BAT
2- KATXIPORRETA ARROPA 1 + 2 SARRERA TRIMAN + ELHUYAR FUNDAZIOKO LIBURU

BAT

3- KATXIPORRETA ARROPA 1 + 2 SARRERA TRIMAN + ELHUYAR FUNDAZIOKO LIBURU BAT
4- KATXIPORRETA ARROPA 1 + 2 SARRERA + ELHUYAR FUNDAZIOKO LIBURU BAT



Non erabili

Beleixeguaixe txartela

www.guaixe.net-en zerrenda osoa ikusgai

DANTZALEKU TABERNA

ALTSASU

Bazkarietan eta afarietan kafea edo kopa doan.

KAXETA

ETXARRI

% 5-eko deskontua irakurketako liburuetan.

KATE INFORMATIKA

IRURTZUN

% 5-eko deskontua 30-tatik gorako erosketan.

BAIZA MOTOR

ETXARRI

Eskaintza bereziak.

KALUXA TABERNA

URDIAIN

Menu edo plater konbinaturarekin kafea edo txupittoa doan, menu bereziarekin kafea edo kopa doan.

CITROËN SAN MIGUEL

ALTSASU

Total oliotan %30eko deskontua. Pneumatikoen alda-

ketetan %20 deskontua.

IRUBIDE JATETXEA

ALTSASU

Gosaria (kafea+pintxo edo bolloa+laranja zuku naturala) 2,50€.

SAKANA OPTIKA

ALTSASU

%15eko deskontua betaurrekoen armazioan eta kristaletan, %10eko gainontzekoetan.

SAKANA

Elizak bere izenean jarri dituen ondasunengatik udalek gobernuari laguntza eskatu diote

Nafarroako udaletako eta kontzejuetako ordezkariak apirilaren 6an Burlatan egingen den batzarrean deitu ditu Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataformak. Bilera deitu dutenen artean Irurtzango eta Altsasuko udalak daude. Plataformak legegintzaldi honetan bi helburu ditu. Batetik, Hipoteka Legearen gehiegizko erabilaren bidez Nafarroan Artzapezpikutzak bere izenean jarritakoak bertan behera uztea eta, bestetik, ondare historiko horren jabetza Nafarroako herriena dela aitortzea.

Bide horretan Nafarroako Gobernuari bi eskaera zehatz egitea aztertuko dute batzarrean. Lehenik, udalerriei informazio juridiko eta historikoa eskaintzea, beren herri-ondarearen jatorri eta esku-bideei buruzkoa, eta Eliza katolikoak bere izenean jarritako ondasunak berreskuratu nahi dituzten



Aizkorbeko eliza.

Udal eta Kontzejuei laguntza ematea. Bigarrenik, Nafarroako Gobernuak diru publikoarekin egiten dituen inbertsioen berriematea, Eliza katolikoak bere izenean jarritako ondare nafarra konpondu, hobetu eta zaintzeko, ehunekotan argi zehaztuz zenbatekoa den Nafarroako Gobernuaren, Estatuaren eta tokiko erakundeen ekarpen publikoak, kostu osoarekin.

Isiltasuna

Eskakizun horiekin dagoeneko 150 udalek eta kontzejuk bat egin dute. Baina elizbarrutiak bereari eutsi eta isiltasunean babestu da, bere izenean jarri dituen ondasunak saltzen, alokatzen, sarrengatik dirua jasotzen eta abar jarraitu bitartean. Gainera, kasu askotan, utzikeriak jota, hondatu egin dira ondasun horiek, funts publikoak eta herritarrek (Nafarroako Gobernuak, Udalek, auzolanak...) horiek konponduko dituzten esperantzarekin, ondoren Elizak nahieran erabil ditzan. Horregatik, toki entitateei plataformak eskatu die guztiz edo zati bat hondatuta duten eraikinen zerrenda osatzea.

Plataformak garbi du eliza ez dela gai bere izenean jarri dituen ondasun guztiei eusteko, eta bistakoa da herritarrek gero eta uzkurragoak izanen direla eraikinen zaintzeko, jabetzaren auziak kolokan jarraitzen duen bitartean, behintzat.

Plataformak garbi du eliza ez dela gai bere izenean jarri dituen ondasun guztiei eusteko, eta bistakoa da herritarrek gero eta uzkurragoak izanen direla eraikinen zaintzeko, jabetzaren auziak kolokan jarraitzen duen bitartean, behintzat.

66

Artzapezpikutzak Sakanan bere izenean erregistratutako ondasun kopurua.

SAKANA

Igandean Aberri Eguna

Iruñea eta Bilbok hartuko dituzte Aberri Eguneko ekitaldi nagusiak. Independentistak sareak Iruñera joateko deia egingo du. Etorrizuna, independentzia leloa zabalduko dute eguerdian Iruñean egingen den manifestazioan. Golem zinemetatik abiatuko da mar-txa. Ekitaldi politikoa eta Alde Zahar-reen animazioa iragarri dituzte. EAJK, berriz, Bilboko Plaza Barrian egingen du Aberri Eguneko ekitaldia, 11:30etik aurrera. Aberri berria leloa hartuta, ekitaldian Iñigo Urkulluk eta Andoni Ortuzarrek hartuko dute hitza.

Etxarri Aranatz



Etxarriarrek sinatzen.

Galdeketa sinaduraz babesteko azken egunak

Etxarri 2012+1 ekimenak sustatu duen galdeketaaren aldeko sinadura apirilaren 12ra arte eman daiteke

Etxarri 2012+1 ekimenak autode-terminazioari buruzko herri galdeketa bat sustatuko du. Etxarriarrek galdera honi erantzutea nahi dute: Ados al zaude Etxarri Aranatz, Euskal Herriko udalerrria izanda, Europako estatu independente berri baten parte izatearekin?

Herri galdeketa arautzen dituen Foru Legea segituz, otsailaren 2an ekin zion ekimenak galdeketa babesteko sinadura bilketari. Etxarri 2012+1 ekimenak ahalik eta etxarriar gehienek babesarekin aurkeztu nahi du udalaren batzarrean. Horregatik, udaletxetik sinadura ematera pasatzeko gonbidatu dituzte 18 urtetik gorako etxarriarrek. Apirilaren 12an, 18:00tik 21:00etara, sinatzeko aukera izanen da ere.

SAKANA

Zentsura mozioaren nondik norakoak

Apirilaren 3an, asteazkenean, 19:00etan Altsasuko kultur gunean hitzaldia

EH Bilduk Yolanda Barcinak zuzentzen duen gobernuaren kontrako zentsura mozioa iragarri du. Apirilaren 5ean aurkeztuko du, beste indarrekin partekatuta nahi du ekimenak, "ahalik eta babes sozial handiena lortzeko". Koalizioaren helburua hauteskundeak deituz herritarrei hitza ematea da. EH Bilduko kideen ustez "Nafarroako errealtatean aldaketa sakonak izateko lanean dihardugun eragile sozial, sindikal, politiko eta herritar guztiena da ekimenak". Horregatik, eragile eta herritarrek haien zentsura mozioaz hitz egiteko bilerak eta hitzaldi erronda hasi du.

PPrendako "eskandalagarria" atez atekoaren kostua

Mank-ek irailaren 25ean egindako batzarrean onartu zuen 1.002.556,49 euroko inbertsioa egitea, PP-k orain salatzen duena

Etxarri Aranazko alderdi popularrereko zinegotzi Juan Antonio Extremerendako "lotsagarria da praktikoa ez, garestia, funtzionaltasun gutxikoa, eta sakandaren egunerokotasuna larriki kaltetzen duen hondakin biltzeta sistema bat ezartzen egin nahi den gastua".

Extremerak jakin nahi du zerga berriak jarri behar ote dituen Mank-ek edo nondik atera behar duen sistemaren ezarpenak balio duen milioi bat euroa. "Halakogastua egin eta maileguak eskatu aurretik bizilagunek sistema hori nahi duten edo ez esan beharko lukete".

PPko zinegotziak galdetu du ea egia den Euskal Autonomia Erki-



Auzo konposta egiteko etxola, mustu zuten egunean.

degoko enpresa pribatuek kudeatu behar duten hondakinak. Galdeketa beste aukera batzuk eskaintzeko eskaera egin dio

Mank-i. PPK bosgarren edukiontzia proposatu du, "merkeago delako eta emaitza bikainak ematen dituelako".

Eguno sistemaren eta atez ateko sistemaren kostuak

	Eguno sistema		Atez ateko sistema		Aldea
	Gastuak	Sarrerak	Gastuak	Sarrerak	
Bilketaz zerbitzua	-1.040.361,73	0	-1.514.200,38	0	-473.838,64
Materialien kudeaketa	-542.053,56	311.558,38	-279.111,5	+583.713,14	+535.096,83
Kudeaketa eta zerbitzuaren balantzea	-1.270.856,91		-1.209.598,73		+61.258,18

Altsasu

Lapurrek lantresna gabe utzi dute

Igande goizaldean lapurrek kamioi bat eraman zuten Altsasuko kamioien udal aparkalekutik. 17 tonako altzairu karga ere eraman zuten lapurrek. Azken hori aseguratuta bazegoen ere, kamioia ez, "asegurua garesti daudelako".

Scania markako R580 modeloko kamioia da lapurtutakoa, 0148 DBM matrikula duena eta gurdiak, berriz, R7923BCE.

Kamioilariak kexu dira Altsasuko kamioi aparkalekuko atea askotan zabalik dagoelako eta kame-

rarik ez dagoelako. Duela hiru urte ere beste lapurreta bat izan zen. Orduan bi kamioi eta gurdiak lapurtu zituzten. Hurrengo egunean Errioxan agertu ziren. Orduko hartan erantzunkizun zibila eskatu zioten Altsasuko Udalarri.



» Etxeberri



Etxeberriko frontoia.

Kontzejuak aurten frontoia estali nahi du

Pilotan, palan, frontenisean, baloia-ekin eta abarrekin jolasteko tokia da frontoia Etxeberri. Festetako bazkari-afariak eta dantzaldiak ere hartzen ditu. Azken horretarako urtero karpa bat alokatu behar izaten du Etxeberriko Kontzejuak. Eta eguraldiak laguntzen ez duenean kiroliek ere ezin da egin.

Gauzak horrela, kontzejuak frontoia estaltzeko proiektua eskatu du. Javier Martija kontzeju buruak azaldu digunez, "egurrezko egitura izanen da guztia. Teilatua olatu baten modukoa da, frontoi gainean dagoen etxeari bista ez kentzeko". Toki entitateak ez zorpetzeko legea dela eta, Martijak azaldu digu ez diotela kontzejuari obra horrekin zorpetzen. Horregatik, kontzejuak Arakilgo Udalarekin harremanetan jarri da bi erakundeen artean 100.000 euro inguruko aurrekontua estaltzeko. Kontzejuak 3 aurrekontu ditu esku artean. Finantziarioa lotu ondoren, gaitasunaren arabera, egitasmoa modu batera edo bestera gauzatuko da. Esaterako, harmaila jarri edo ez izan daiteke aurretako bat.

» Olatzagutia

Aldi baterako kontratuak egingen ditu udalak

1.773.850 euro kudeatuko ditu Olatzagutiko Udalak aurten, joan den urtean baino %2,61 gutxiago

Martxoaren 21ean egindako bilkuran aurtengo aurrekontua onartu zuen Olatzagutiko Udalak, Musika Eskolako Patronatuarenak ere hartzen dituena. Aurrekontua Bilduko- en eta PSNko bi zinegotziren aldeko eta PSN eta PPko zinegotzi banaren abstentzioarekin onartu zen.

Aurrekontuetan aipagarria da langileria gastuetan izan de %13,72ko hazkundera, 661.710 euro tangeldituz. Udalaren asmoa da aldi baterako kontratazioak egitea. Batek, oztopo arkitektonikoak kentzeko igeltsero bat eta peoi bat kontratatuko ditu. Eskolako sarreran arranja bat egingen dute eta Olatzagutiko makina bat kaleetako espaloiak moldatuko dituzte. Bestetik, Nafarroako Gobernuak gizarte laguntzak jasotzen dituzten pertsonak kontratatuzko diru-sail bat zehaztu da. Gobernuaren diru-laguntza jasoz gero egingen lirateke kontratazio horiek. Azkenik, hiru hilabetez basolanak egiteko peoi bat ere kontratatuko du udalak.



Olatziarrak kalean hizketan. ARTXIBOA

Enpresa publikoa

Olatzagutiko Udalak kirol azpiegiturak kudeatuko dituen enpresa publikoasortu du eta gaur egun hura merkataritza-erregistroan izena emateko tramiteak egingen ari da.

Hura sortzeko 3.300 euroko ekarpena egin du udalak. Hydra enpresak maiatza hasieran utziko du kudeaketa udalaren enpresaren esku. Horreke du eragozpenik sortuko martxan dauden jardueretan eta hila bukatu arte jarraituko dute.

Inbertsioak %52,6 behera

Horren arrazoia da Nafarroako Gobernuaren laguntzarik ez dela espero Olatzagutiko Udalak.

Beraz, 113.370 euro aurreikusi ditu inbertsioetarako Olatzagutiko Udalak. Hainbat udal-azpiegiturretan hobekuntza lanak egi-

Inbertsioak

Beste inbertsioak	Dirua
Kirol zerbitzuak	121.000
Festak	80.000
Kultur jarduerak	39.000
Argiteria publikoa	32.000
Erabilera publikoko azpiegiturretarako	30.000
Harrobien leherketen neurketa	30.000
Baso lanak	26.500
Hirigintza plan berria	12.470
Igerilekueko hobekuntza lanak	10.000
Kultur etxean hobekuntza lanak	6.000
Jubilatu elkarte berogailua	6.000
Kultur etxeko berogailua egokitzea	3.000

Musika eskolaren patronatua

41.510 euroko aurrekontua izanendu. Haietatik 25.000 euro Olatzagutiko Udalak jarriko ditu (%60,22). Matrikulen bidez 12.000 euro eskuratuko dira (%28,9) eta Nafarroako Gobernuak musika ikasketetarako 4.500 euro emanen ditu soilik (%10,84).

nen dira. Udalak aurten jaso duen laguntza bakarra hirigintza plan berria egiteko finantziarioa besterik ez da.

SAKANA

Ekolabela La Burundesarendako

Enpresari ingurumen inplikazioa aitortu dio Nafarroako Gobernuak

Garraioaren etiketa ekologikoa, Zigilu Berdea, jaso zuen astelehenean La Burundesak. Aitorpen hori ingurumenarekin, energiaren aurreztearekin eta lehiakortasuna hobetzeko konpromisoak hartu dituzten enpresei ematen die Nafarroako Gobernuak. Garraio arloko "ekolabel" gisa ezaguna da. Hura eskuratzeko enpresek hainbat baldintza eta epe jakin batean helburu batzuk bete behar

dituzte, esaterako, ur kontsumoan, CO2 eta bestelako gasen isurietan, ingurumen arloko prestakuntza, gidaritza eraginkorra, hondakin arriskutsuen kudeaketan eta abar.

Nafarroan bidaiarien garraioan aritzen den enpresetan La Burundesa da Zigilu Berdea jasotzen duen aurrenekoa. Javier Otxoa kudeatzaileak eta Jone Martinez zuzendariak Luis Zarraluki Sustapen kontseilariaren eskutik jaso zuten ziurtagiria.



La Burundesa

1925ean sortuta, gaur egun 40 autobus baino gehiago eta 60 langiletik gora ditu. Enpresak

azken 5 urteetan 1,8 milioi baino gehiagoko inbertsioa egin du segurtasunean azken aurrerapean dituzten 8 autobus berri erosteko.

» Arbizu

Embutidos Arbizuk ekologikoarekin zabaldu du bere eskaintza

Asteartean Embutidos Arbizuk ekoizten dituen txistor eta txorizo ekologikoak aurkeztu zituen. Ainara Goikoetxea Arbizuk, enpresako nagusietako batek, azaldu digunez, aspaldiko egitasmoa gauzatu du Embutidos Arbizuk. Lehengai ekologikoak opatu dituzte, "ez dago asko eta zaila da opatzea" (txerrikia Errioxakoa, piper gorria Murtziakoa eta baratxuria Extremadurakoa) eta Nafarroako Nekazal Produkzio Ekologikoaren Kontseiluan (NNPEK) ekoizle gisa alta eman da. Arbizuko enpresaren asmoa da etorkizunean ekoizpen ekologikoko bere eskaintza ekoizten duen beste produktuetatik batzuekin aberastea, "kon-

tsumitzaileari aukera gehiago emateko".

Goikoetxearen arabera, "zapoz nabari du goxoago atera dela. Baina pixkanaka hobetu nahian arigara, printzipioz ona atera da". Betiko txistorren aldean zapoz gehiago duela esan digu Goikoetxeak: "koipe pixka bat gehiago dauka baina zapoz finagoa atera da. Nik uste haragia finagoa dela. Eta baratxuria eta piper gorria ohikoagoan baino finagoak dira". Ekoizpena pixkanaka handitzeko asmoa dute.

Embutidos Arbizuren bi produktuetatik NNPEK eta Reyno Gourmet zigiluak dituzte. Arbizuko enpresako buruen ustez pro-

duktu ekologikoen kontsumoa gora doa. Ekoizpen ekologikoan hasteak ohiko txistorrak eta txorizoak egun batean eta besteak beste egun batean egitea ekarri du lantegira, "inolako nahasketarik ez egoteko".

Ekoizpenaz

Egun gehien ekoizten duten produktua txistorra da. Horrekin batera, txorizo freskoa, urdaia-hirugierra eta pateak. Ekoizpena Euskal Herrietik kanpo ere saltzen ari da Embutidos Arbizu (Norvegia, Filipinak, Ingalaterra, Frantzia). "Atzerriko merkatu horiek zabaltzeko asmoa dugu. Argi dago kanpora saltzera joan behar dela



Aurkezpenean egon ziren: Mendilibar (Osasunako entrenatzailea), Joseba Ezkurdia (pilotaria), Peio Reparaz (Vendettako musikaria), Javier Diez (Alhambra jatetxea), Angela Sabalsa eta Sara Machin (NNPEK), Itziar Inza (Reyno Gourmet), Helena BM eta Silvia Redongo (gastronomi blogariak).

. Gaur egun hemen ez da oso ona". Hala ere, txistorra eta txorizoa

krisi garaian saltzen diren produktuetatik direla azaldu digu Ainarak.

>> Altsasu



Eraikiko den baleontzia.

Ura eta zura lotzen dituen erakusketa

Gure ondare ez-materiala berreskuratzeko helburuarekin eta landalurretan garapena sustatzeko bat egin dute Sakanako Garapen Agentziak, Donostia 2016k, Albaola elkarteak eta Zerainek. Eta elkarlan horren fruitua San Joan baleontziaren errepika izanen da, Albaola elkarteak eginen duena. Horretarako Sakanako 200 haritzen zura erabiliko du. Egitasmo horren berri zabala emateko apirilaren 2an erakusketa zabalduko da Altsasuko Iortia kultur gunean, apirilaren 21era arte ikusgai izanen dena.

>> Altsasu

Lazaro Echeverriako langileak 22 egun greban

Martxoaren 6an hasi zuten mugagabeko greba Lazaro Echeverriako langileek (ELAko 3 ordezkari enpresa batzordean) eta berehala salatu zuten haien egitekoa enpresaren jabe den familiako kideak egiten ari zirela. Lan ikuskaritzan salaketa jarri zuten eta ikuskatzaileak langileei arrazoia eman die, jabeek legearen kontra aritu dira. Horretan segituz dezaten langileek epaitegian salaketa jarriko dute.

Altsasuko Udalak atzo bilkura zuten eta bukaeran mugagabeko greban dauden Lazaro Echeverria enpresako langileei babesa azaltzen dien mozioa aztertu zuen. Horren aurretik, 18:00etan, udaletxe aurrean kontzentrazioa deituta zegoen.



Asteazkenetan, 11:30ean, langileek kontzentrazioa egiten dute azokan.

Langileei babesa emateko herritarrek kontzentrazio horretan parte hartzea deitu zituzten. Langileak, bitartean, asteazkenero 11:30ean azokan haien aldarri-

penen berri zabalduko dituzte.

Lazaro Echeverriako langileek kaleratu dituzten sei kideak enpresak berriro har ditzala eskatzen dute. Horrekin batera, langileen

lan eta soldata baldintzak blindatu dituen hitzarmena ere aldarrikatzen ari dira. Zuzendaritzak hitz egiteko borondaterik ez duela ere salatu dute.

>>

Sunsundegui eskualdatzeko negoziazioak

Sodenako eta enpresako abokatuak aste honetan bilduta izan dira Sunsundegui enpresa eraketa berria negoziatzen. Hainbat gai lotzeko daude oraindik. Langileen batzarren oniritzia eman zion akordioaren arabera enpresaren jabetzaren %51 zuzendaritzaren esku geldituko da eta gainontzekoa langileen esku. Enpresa batzordean UGTk 5 kide ditu, ELAk 4, LAB 3 eta independente bat dago.

Akordio horretan ere 61 langile kaleratzea onartu zen. Haietatik 18k aurre-jubilatuta edo boluntarioki utziko dute enpresa. Gai nontzeko 43ak kontratua eteteko Enplegu Erregulazio Espediente (EEE) baten bidez kaleratuak izanen dira. Nafarroako Gobernuak kalte-ordainak pagatzeko dirua

eman bezain laster gauzatuko da EEE, eta ez dirudi Aste Santu aurretik izanen denik.

Kezka

ELAko eta LABeko ordezkariak kaleratuen pertsonen zerrendari erreparatu diote eta "garbiketa ideologikoa" izan daitekeenaren kezka azaldu dute. ELAtik azaldu digutenez, "jendea kaleratu eginen dute eta lan karga egonen dela dirudi eta langileak hartu egin beharko dituzte. Guk proposatu genuen lanen barneratzea zentzuzkoa zen".

Konfirmazio ofizialaren faltan, kaleratuen zerrendako %90a UGTri lotutako langileak ez liratekeela izanen ohartarazi dute LABetik. Sindikatu abertzaleak



Autobusak eta trenak egiten dituen lantegia.

gogora ekarri du 2011ko lastailean 37 kaleratu izan zirela eta orduan ere "garbiketa ideologikoa" salatu zuela. "Ondoren lan baldintza okerragoak zituzten langileak kontratatu zituen enpre-

sak. 2012an, batz bestea, hilero mila ordu estra" egin direla ere salatu du LABek. "Garbiketa ideologikoa" gauzatu zergo auzitegian salaketak eta mobilizazioak iragarri ditu sindikatuak.

>> Olatzagutia



Porlandegiari ez dio FCCren espedienteak eraginen.

FCCren EEEK ez dio porlandegiari eragiten

Halajakin arazi digu Javier Lekunberrik UGTko kideak: "Cementos Portland Valderrivas (CPV) FCC taldekoa bada ere, Enplegu Erregulazio Espediente (EEE) hori porlandegiari ez digu eragiten". Bestela, enpresa batzordea (UGT 4, ELA 3 eta CCOO 2) negoziatzera deituko zituztela azaldu digu

Lekunberrik.

Bere eraikuntza arloan FCCk 1.143 kontratuak eteteko espediente iragarri zuen taldeko zuzendariak. Eta, horrekin batera, ekoizpena egokitzeko CPVko porlandegiren bat itxi beharko zela esan zuen. Biak aldi berean esateak nahasmena sortu zuen.

>> Uharte Arakil

Kaleratzeak izan daitezke Lanekon

Uharte Arakilgo enpresan zuzendaritza eta enpresa batzordea (LABek 4, UGTk 2, ELAk 2 eta CCOOk 1) heldu den ostegunean bilduko dira. Ekoizpenaren jaitsiera dela eta zuzendaritzak 10 eta 25 kaleratze artean egiteko aukera aztertzen ari dela jakinarazi die

langileen ordezkariari. Gaur egun 93 langile ari dira Laneko SALen bi adarretako batean lanean: fidagarritasun altuko torlojugintza eta errepedeko garraio bereziatarako ekipoak. Krisi garaian aurreneko adarrak izan du lan karga gehien.



Heldu den astean negoziatzen hasiko dira.

948 564 275



flyer edo eskuorrien eskaintza

300 ALE
80 €
1.000 ALE
170 €

SAKANA

Udalen diruarekin hornituko dira liburutegiak

Nafarroako Gobernuak ez die dirurik banatuko funtsak erosteko

Liburutegietako funtsak berritzea ezinbestekoa da, jendearen interesa eta indarraldia mantentzeko

Nafarroako Liburutegien Sareko kide dira Irurtzun, Etxarri Aranatz, Altsasu eta Olatzagutiko liburutegiak. Aurten batek berak ere ez du Nafarroako Gobernuaren lauko bat bera ere jasoko funts berriak erosteko. Joan den urtean Irurtzuneakoak, Etxarrikoak eta Olatzagutikoak 375na euro jaso zituzten, eta Altsasukoak 3.653 euro, haietatik 1.500 euro Altsasutik kudeatzeko. Gainera, aldizkarietarako harpidetzak ere eten egin ditu. Aipatu lau liburutegietara iritsiko diren liburu, CD, DVD eta bestelako funts berriak udalek egindako ekarpe-



Irurtzango liburutegian gustuko alearen bila. ARTXIBOA

nengatik izanen da: Irurtzunek eta Olatzagutiak 2.500a euro, Etxarri Aranatzek 3.500 euro eta Altsasukoak 7.560 euro.

Foru administrazioak 50.000 euro ditu funtsak erosteko eta Iruñean egingen ditu erosketak gero sarean banatzeko. +www.guaixe.net

Udal liburutegiak

Sare horretako liburutegiez aparte, Sakanan beste lau udal liburutegi daude: Lakuntzakoak, Arbizukoak, Urdiangoak eta Ziordikoak. Udalen ahalginiari esker eusten diote horiek.

MOTZEAN

Aste Santua Aralarko santutegian

Aralarko Deun Mikel Goiaingeruaren kofradiak jakinarazi digunez, Aste Santua dela eta santutegian egunero elizkizunak izanen dira. Ostegun eta ostiral santuan 16:00etan izanen dira mezak. Pozezko larunbatean, 20:00etan, eta igandean, Pazko egunean 12:30ean.

Bestalde, igandean, 16:15ean Aralarko aingeruak santutegia utziko du herriz herriko ibilbideari ekiteko. Igandean, Aralarren barna, hainbat pertsonen lagunduta Baraibarerraino joanen da.

Euskararekin konpromisoa hartzeko deia

Apirilaren 5ean, ostiralean, 19:00etatik 21:00etara Altsasuko Foru plazan

Euskal Herrian Euskaraz-ek (EHE) Ez zaituzte espaloitik jaitsi!! Euskaraz bizi! dinamika martxan jarri du.

Altsasuarrak dendetan sartzean edota ezezagunei zuzentzean lehen hitza euskaraz egiteko eskatu die eragile euskaltzaleak. Azken finean, altsasuar euskaldunei euskaraz bizitzeko deia luzatu die. Horrekin konpromisoa hartzeko aukera izanen dute nahi duten guztiek apirilaren 5ean, EHEk deituta.

Aisialdirako begiraleak trebatzeko

Burunda mendebaldeko haurtzaroko tratuenaren sutapen taldeak antolatuta, aisialdi begiraleei zuzendutako tailerra antolatu du. Profesional horiek aisialdian tratu onen sustatzaile izateko helburua du tailerrak. Hiru saio izanen ditu: apirilaren 13an, 27an eta maiatzaren 4an, 10:00etatik 13:00etara, euskaraz. Saiok Intxostiapunta gazte gunean izanen dira. Antolatzaileek akaberan asistentzia ziurtagiria emanen dute.

Izen ematea

Apirilaren 8ra arte, 948467471 telefonoaren edo ludoteka@altsasu.net helbidearen bidez. Plaza mugatuak.

6 pertsonen gorpuzkinak 3 espero ziren tokian

Urbasako saroiko siman gerran eraildako 6 pertsonen gorpuzkinak opatu zituzten larunbatean Aranzadi zientzia elkarteak kideek. Zazpi diren ere zalantzan dago. Boluntario eta Nafarroako Afusilatuen Senideen Elkarteak kideen laguntza izan zuten. Guztiak jasotzeko baimena eskatu du elkarteak eta atzo eta bihar artean haiek ateratzeko lanak egingen dituzte.

Sima horretan Balbino Garcia de Albizu Usarbarrena, Gregorio Garcia Larrambeberre eta Balbino Bados Garcia UGTko kide ziren



Hildakoen senideak eta elkarteak kideak. KOLDO PLA

ameskoarren gorpuak zeudela jakina zen. Gainontzeko hirurak norenak diren ikertzea falta da orain. Elkarteak darabilen hipotesia da hildako beste hiru pertsonak arabarrak izatea.

Tartalariak: zigor eskaerak "neurritz kanpokoak eta eskandaluzkoak" dira

Auzipetuen aldeko kanpaina martxan jarri dute

Mugitu! Abiadura Handiko Trenaren (AHT) aurkako desobediencia mugimenduko kideek duela urte eta erdi Yolanda Barcinari tartak bota zizkioten. AHT egitasmoa salatzeke ekimen horregatik Espainiako Auzitegi Nazionalan auzipetu zituzten. Hiru tartalari agintearen aurkako atentatuaren zuzeneko egileak izatea leporatzen die eta beste bat beharrezko kolaboratzailezat jotzen du.

Fiskaltzak bosna urteko espetxe zigorra eta 2.700a euroko isuna eskatzen du. Akusazio partikularrak, berriz, hirurendako 6 urteko kartzela zigorra eta 3.600a euroko isuna eskatzen du. Gorka Ovejeroren kasuan Barcinaren

eskaera 9 urteko espetxe zigorra eta 5.400 euroko isuna da, hura Arruazuko zinegotzi karguaz baliatu zela argudiatuta. Epaiketa datarik ez dago zehaztuta.

Balorazioa

Mugitu!-ko kideek zigor eskaerak "neurritz kanpokoak eta eskandaluzkotzat" jo dituzte, "protesta ekintza komiko baten aurrean bai-kaude". Beste herrialdeetan hala-ko ekintzek inolako ondorio legalik ez dutela adierazi dute. Tartalariak Barcinaren "mendeku politikoa" gaitzetsi dute eta gogorra ekarri zuen bere menpeko Foruzaingoa erabili zuela kasua ikertzeko. Tartalariak, bestalde, "halako kasuak ahalbidetzen dituen sistema juridiko honen manten-

tzea arbuiatzen dugu, zuzenean frankismotik eratortzen dena".

Kanpaina

Auzipetutako lau kideen alde nazioarteko kanpaina martxan jarri du Mugitu!k. Hiru ardatz ditu kanpaina horrek. Alde batetik, AHT salatzea "azpiegitura suntsitzailea delako, ezdeusa, xahutzailea krisi orokor baten testuinguruan eraikitzen dabiltzana". Bestetik, AHT moduko azpiegituren inposaketaren aurrean, desobediencia zibila aldarrikatuko dute. Azkenik, AHTren aurkartzaren kriminalizazioa neurri-gabeko zigorretan oinarrituz eta frankismoaren oinordekoa den sistema juridiko batez baliatzen dela salatuko dute.

Aukeratu Guaixe

Proiektu zenbakia: **50410**

cajanavarra

Nafarroan erroldatuta egotea eta 18 urte edo gehiago izatea.
Bete formularioa, sinatu eta ekarri bulegora.
Zuri esker 10€ko laguntza jasoko dugu.
www.cajanavarra.com

MENDIA

PURA VIDA PELIKULA IRURTZUNEN: Annapurnan 7.400 metrotan hilzorian zegoen Inaki Otxoa de Olza alpinista erreskator

tzeko egin ziren ahaleginak kontatzen dituen filma Irurtzunen ikusgai, apirilaren 5ean, 20:00etan, Kultur Etxean. 3 euro.

>>



XXI. Irurtzango Pilota Txapelketa martxan

Bihar hasiko da XXI. Irurtzango Pilota Txapelketa. Benjaminetatik hasita seniorretaraino, parte-hartze ikeragarria dago: 32 bikosen seniorretan eta 20 eta 24 bikoen artean gainontzeko kategoriatan. Partidak Irurtzunen eta Etxarrean jokatu dira.

Partidak

Martxoak 28, osteguna, 10:00etan:

Haurrak: Telleria-Arana (Urretxu) / Urruzola-Etxeberria (Añorga)

Seniorrak:

Murgiondo-Arruti (Aldabide) / Jaunarena-Andueza (Erreka) / Eskudero-Otaño (Andoain) / Ijurrá-Iraitzoz (Irurtzun)

Maia-Mendigia (Umora) / Ibarrondo-Berrueta (Zaramaga) / Maiza-xxx (Añorga) / Gartzia-Kintana (Sutegi)

Martxoak 29, ostirala, 10:00etan:

Seniorrak:

Jimenez-Aristu (Bi aizpe) / Senar-Gebara (Pilotajauku) / Insausti-Jauregi (Añorga) / Olan-gua-García (Oberena)

Artola-Jubera (Titin) / Mazkian-Alustiza (Pilotajauku) / Ansa-Otamendi (Pilotajauku) / Goñi-Diaz (San Miguel)

Martxoak 30, larunbata, 10:00etan, Irurtzunen:

Kadeteak:

Matxain-Aranburu (Añorga) / Zudaire-Ustarroz (Irurtzun) / Oiarbide-Murua (Andoain) / Ayesa-Aranguren (Zugarralde)

Santxez-Gil (Esteribar) / Beraza-Gorriti (Bi aizpe)

Otermin-Gartzia (Sutegi) / Azkonieta-Garmendia (Lapke)

Marcos-Aizpuru (Titin) / Egiburu-Irizar (Lapke)

Pilota

Zabaleta, sakandar bakarra lehian

ZABALETA-IRUJOK OLAIZOLA II-ZABALA AURKARI FINALERDIETAKO LIGAXKAKO LEHEN PARTIDAN

Binakakoa. Finalerdietako ligaxka 1. jardunaldia

Zabaleta-Irujo/Olaizola II-Zabala (larunbatean, 17:30ean, Ogetan. NITRO)
Berasaluze VIII-Albisu/Bengoetxea VI-Beroiz (astelehenean, 17:30ean, Astelenan. ETB1)

Despeditu da Binakako Pilota Txapelketako hasierako ligaxka, Titinen polemika eta guzti. Titin eta Merino ez dira finalerdietan egongo, bai ordea Berasaluze VIII eta Albisu (6 puntu). Eurekin batera Bengoetxea VI-Beroiz (10 puntu), Olaizola II-Zabala (10 puntu) eta Zabaleta-Irujo (11 puntu) ariko dira. Tamalez, 5 punturekin finalerdietatik kanpo geratu dira Ezkurdia-Zubieta sakandarrak, Xala-Barriola (5 puntu) eta Arretxe-Begino (3 puntu) bikoteekin batera.

Zerotik hastera

Jose Javier Zabaleta izango da finalerdietan ariko den sakandar bakarra. Albisuren ama lakuntzarra da, eta, hortaz, lakuntzar asko ere poztu dira Albisuk aurrera egin duela. 22 urteko Etxarrengo atzelariak debut ikusgarria egin du Binakakoan, eta espero dezagun finalerdietan ere berdin aritzea. Bera eta Irujo dirafaboriton nagusiak, Aimar Olaizola eta Ibai Zabala erekin batera. Hain zuzen ere finalerdietako lehen jardunaldian aipatu bi bikoak lehiatuko dira, larunbatean. Hasierako ligaxkan jokatuak 2 partidetan Irujo eta Zabaleta gailendu ziren, baina eurek ez dute bere burua faborito ikusten. "Aurrekoak ez du balio. Txapelketa berri bat hastenda" dio Irujok. Olaizolak, beste behin, Zabaleta goraiatu du. "Gehien nabarmentzen ari den atzelaria da eta Irujo ondobaliatzen ari da" adierazi zuen. Ea nork lortzen duen jokoan dagoen puntua.

Zabaleta txapelketako sentsazioa



Jose Javier Zabaleta: "Olaizola-Zabalaren kontra aritzeko gogoz nago"

Askorendako Irujo-Zabala eta Olaizola-Zabala dira faboritoak. "Ez pentsa, ligaxkan guk Olaizolari bitan irabazi genion eta Bengoetxea-Beroizekin eta Berasaluze-Albisurekin galdutako egin izan dugu" adierazi digu Zabaletak. Nahiko lasai topatu dugu etxarrendarra. "Txapelketa hasieran urduriago nengoen. Orain sasoi batean nago, eskuak ongi, fisikoa ere... larunbateko partida jokatzeko gogoz nago. Badirudi Olaizola-Zabalari tamaina hartu diegula, baina orain zeretik hasi behar gara. Ea lehendabiziko puntu hori lortzen dugun" adierazi digu etxarrendarrak. Txapelketako sentsazioetakoa bat da Zabaleta, Aimarrek ere bitan esan du txapelketan gehien nabarmentzen den pilotaria dela, gehien jotzen duena. "Bueno, ea egia den" dio umil Zabaletak. Materialarekin pozik dago. "Pilotan normalak, politak dira, eurenak biziagoak, baina onak. Bestalde, Ezkurdia debutatzen galdututa, txapelketan ongi ikusi du arbuzarra. "Pena alde txikiagatik kanpoan gelditu izanak". Zorrikerik hobereana opa diogu Zabaletari. Ea finalean ikusten dugun.

Beste bi bikoak, Bengoetxea-Beroiz eta Berasaluze-Albisu, ez dira, inolaz ere, alboratu behar. Katedrak aspaldiko partez inoiz baino irekiago ikusten du txapelketa, parez pare. Elkarren kontra ariko dira bi bikoak igandean. Hurrengo asteburuan 2 partidetan irabazleak elkarren kontra lehiatuko dira eta galtzaileak elkarren kontra, eta hurrengoan ordura arte jokatuko ez diren norgehiagokak. Bi biko onenak sailkatuko dira final handirako. Argi dagoena da txapelketan izan nahi duenak izugarri izerditu beharko duela.

Ezkurdia-Zubieta egindakoarekin pozik



Joseba Ezkurdia:

"Pozik egoteko arrazoiak ditugu"

Aurrelari arbuzarrak Binakako Txapelketan debutatu du, eta aitortu digunez, uste baino lasaiago ibili da. "Nahiz eta beti tentsio puntu hori izan eta momentu deserosoak egon, uste baino lasaiago ibili naiz". Egindako lanarekin pozik dago Ezkurdia. "Uste dut maila ona eman dugula. Konpetitiboak izan gara. Pena izugarria ematen du bi partida erabakiorrak oso gutxi gaitik galdu izana, baina pozik egoteko arrazoi asko ditugu. Txapelketan ongi ulertu gara publikoarekin eta maila ona eman dugu" adierazi du. Polemika tarteko, Titin-Merinoen kontra tanto eskas batengatik galdutako partidaren ondoren gelditu ziren aurrera egiteko aukerarik gabe. "Hil ala bizikoa zen partida eta tanto batengatik galdu genuen. Guk partida polita egin genuen baina akats potoloak baita; zorte txarra. Egin genuenarekin gelditzen gara" gaineratu du arbuzarrak. Zale sakandarren babesa eskertu du. "Ezin gara kexatu, jendeak frontoietara jarraitu gaitu" dio, eskertuta.

Aitor Zubieta:

"Zorte puntu bat falta izan zaigu"

Sentsazio onekin bukatu du Binakakoa Aitor Zubieta. "Azken partida kenduta sentsazio onekin bukatu dut. Pena bakarra da bi partidak erabakiorrenetan, Berasaluze-Albisuren eta Titin-Merinoen kontra oso gutxi gaitik gaitzea. Askotan detaile txikiengatik gaitzen da eta hori gertatu zaigu, zorte puntu bat falta izan zaigula. Baina kontentua nago egin dugunarekin" adierazi digu Etxarrikoak. Joseba Ezkurdiaekin oso gustura aritu da. "Oso ongi ikusi dut. Oso eramangarria da berarekin batera aritzeko, ongi atentitzen du. Parejatan aritzeko lekua duela argi utzi du. Badaki serio jolasten". Euren bikoa asko gustatu duela galdeginda irribarrez dio: "jokoan bikote ikusgarria eta erakargarria gara, boterea eta jokoa duena. Ea enpresak udako torneotako batean elkarrekin programatzen gaituen". Buruz buru oso ongi ikusten du bere burua Zubieta. "Azken edizioetan ebakuntzak zirela, eskuko mina zela... ez nengoen nire onenean. Orain, aldiz, jokoa arekin nago, fisikoki ongi. Gogoz nago".

>>

Ezkurdia-Zubieta Aste Santuko Aspeko Binakako berezian

Aspek Binakako Pilota Txapelketa berezia antolatu du Aste Santurako: 5 t'erdia barruan lehiatuko diren Asperen 3 bikoteraren arteko txapelketa: Idoate-Laskurain, Ezkurdia-Zubieta eta Xala-Pascual. "Ez dakit aurrean guztiak sartuko garen, baina gustura hartzen ditut gauza berriak eta hau nobedadea da. Ea igandeko finalean han garen" adierazi du Zubieta.

Aste Santuko

5 t'erdiko Binakakoa

Finalerdia: Idoate-Laskurain / Ezkurdia-Zubieta (ostiralean, 17:00etan, Zarauzko Aritzbatalden. ETB1)

Finala: Garaileak - Xala-Pascual (igandean, 17:00etan, Aritzbatalden. ETB1)

PPSOE,
ETB
digitala
Nafarroan
orain!
Berria erosi taldea

JUANLUZENA
SAGARDOTEGIA
urtariletik maiatzera
tel. 948 604 571
ODERITZ

NEREA
ILEAPAINDEGIA
NEREA BAKAIKOA.
Ermiñeta Kalea 4. ZBK. (Atzekaidea)
LAKUNTZA. TFN:948 576 331

Igoa
arraiendegia
948 460 111 · Arkuetobide kalea · Etxorri Arantz

Duatloia

ALTSASUKO IV. DUATLOIA-RAZESA SARI NAGUSIA

Amatriainen laugarrena Altsasun

7 SEGUNDO ATERA ZIZKION MULLER TALDEKIDEARI. EMAKUMEZKOETAN NURIA RODRIGUEZ TALDEKIDEA IZAN ZEN ONENA. JAVI BORREGA IZAN ZEN LEHEN SAKANDARRA

Sakandarrak Altsasuko IV. Duatloian		
1.	Raul Amatriain	1:00:55
12.	Javier Borrega	1:03:03
17.	Francisco Javier Gomez	1:03:17
25.	Urko Berdud	1:04:02
34.	Juan Carlos Gomez	1:05:41
36.	Sergio Garcia de Eulate	1:05:45
46.	Jose Ignacio Mikeo	1:06:10
62.	Isidro Asurabarrena	1:08:19
83.	Emilio Guirado	1:11:02
87.	Jose Manuel Borrega	1:11:32
122.	Iñigo Maiza	1:16:52
124.	Iñaki Gallego	1:17:19

*Oharra: Klasiifikazioan duatleten jaioterririk aipatzen ez denez, gerta daiteke sakandar gehiago egotea.

Eguzkia lagun, Altsasuko Duatloia-Razesa Sari Nagusia jarraitzeko jende ugari bildu zen Altsasun. Sakanari Triatloi Taldeak hainbat entitate eta babesleen laguntzarekin antolatu zuen proba geroz eta arrakastatsua goa da, eta horren isla, 197 duatletek hartu zuten irteera. Kategoria txikikoak goizean Nafar Kirol Jolasetarako baliagarria zen proba jokatu zuten eta guztira 90 duatleta arituz ziren. Kadeteak eta juniorrak proba nagusian aritu ziren. Altsasuko Duatloia aldi berean Nafarroako Sprint Duatloi Txapelketa izan zen eta Nafarroako eta Vasco-Navarroko Zirkuituetarako baliagarria zen.

30,5 km guztira

Lehendabizi emakumezkoek hartu zuten irteera eta 15 minutura abiatu ziren gizezkoak. Altsasuko herri gunean prestatutako zirkuituari 2 itzuli eman behar zizkieten, 5 km osatuz, gero Iortia Kultur Gunearen aurrean zeuden boxetan bizikleta hartu eta 23 km osatzeko. Aurten Altamirara jo beharrean Otzaurte alde-



Javier Borrega helmugara heltzen. Lehen sakandarra izan zen. Urko Berdud trantsizio gunetik ateratzen.



ra egin zuten buelta. Bukaeran bizikleta utzi eta zirkuituari buelta bat eman behar izan zioten, 2,5 km osatuz.

Raul Amatriain zen faborito nagusia, eta Saltoki Trikideak taldekoak ez zuten huts egin. Hala ere, proban barna oso gertu izan zuen Arangurengo duatloia irabaztetik zetorren bere taldekide Martin Ignacio Muller. "Hasieratik erritmoa gogortu dut, bizikletan oso fuerte daudelako beste batzuk. Gainera, aldagailuarekin arazoak izan ditut eta zenbait segundo galdu ditut. Horrengatik korrikako azken sektorean estutu behar izan dut" adierazi zuen Altsasun laugarren garaipena lortu duen Amatriainek (1:00:55). 7 segundora sartu zuen Muller (1:01:02). Francisco Javier

Etxarrik osatu zuen podiuma (1:02:24). Emakumezkoetan Saltokiko Nuria Rodriguez izan zen azkarrena (1:14:20), Leire Etxezarretaren (1:15:42) eta Inmaculada Ruizen aurretik (1:017:04). Zalan-zarik gabe, Saltokikoak izan ziren jaun eta jabe.

Sakandarrak

Sakandarrak txukun aritu ziren, zaleen animuak jasoz. Javier Borrega eta Urko Berdud altsasuarak izan ziren buruan proban barna, eta azkeneko sektorean Berdud iritsi zen lehenengo. Baina Berdudek arazoak izan zituen dortsalarekin, denbora galduz, eta Javier Borregak eta Pitxi Gomezek bera aurreratzea lortu zuten. "Lehen sakandarra bai, baina asko kosta-

ta" adierazi zigun Borregak.

Hurrengoa Arbizun, apirilaren 27an

Antolakuntzak 800 euro banatu zituen saritan, eta momotxorroen irudia zeramaten plakak eta trofeoak. Aipatzekoa da giroa bikaina zela, ibilbidea asko gustatu zitzaie la parte-hartzaileei eta duatloia festa polita izan zela. Sakanako hurrengo proba Arbizuko Duatloia izango da, apirilaren 27an.

Maiza Zornotzan

Igandean Zornotzako Duatloia jokatu zen (10 km korrikan, 38 km bizikletan eta 5 km korrikan). Iurgi Etxeandia nagusitu zen (1:49:34). Juan Luis Maiza 75.a sailkatu zen (2:07:57).

Futbola

3. MAILA

30. JARDUNALDIA

LAGUN ARTEA 0 - ERIBERRI 2

Ez ohiko taldea zelairatu zuen Lagunek, 3 baja tarteko. Gauza lasai joan zen arbitroak, linierrari kasu eginez, Lagunen kontrako zalantza penaltya adierazi arte. Protesta egiteagatik Xabi Bakaikoa kaleratu zuen. Atezainak penaltya gelditu zuen baina kornerra ateratzerakoan aurreratu zuen Erriberi, eta 10 minutura beste gol bat sartu zuen. Gainera, Medina eta Palomo lesionatu ziren.

Sailkapena >>

- 1. Mutilbera 62 p
- 12. Lagun Artea 41 p

Asteburuko jardunaldia

PEÑA AZAGRESA - LAGUN ARTEA

(Gaur, ostegunean, 17:00etan, Azagan)

LAGUN ARTEA - CORTES

(Apirilaren 7an, 16:30ean, Lakuntzan)

ERREGIONAL MAILA. 4. multzoa

25. JARDUNALDIA

ARDOI 0 - ETXARRI ARANATZ 1

KIROL SPORT 2 - ALTSASU 0

5. minuturako Arratibelek Etxarri aurreratu zuen eta abantaila hori oso ongi kudeatu zuen Etxarrik. Bestalde, Altsasuk oso ongi jokatu zuen eta Kirol Sporti izugarri kosta zitzaion irabaztea.

Sailkapena >>

- 1. San Juan 67 p
- 8. Etxarri Aranatz 29 p
- 9. Altsasu 24 p

Asteburuko jardunaldia

ETXARRI - KIROL SPORT

(Apirilaren 7an, 16:30ean, Etxarri)

ALTSASU - BERRIOZAR

(Apirilaren 6an, 16:15ean, Altsasun)

ELOMENDIKO TXAPELKETA

21. JARDUNALDIA

ZALDUA 5 / ROCA 1

ELOMENDI 2 - EGJARRETA 3

Sailkapena >>

- 1. Elomendi 29 p
- 5. Zaldua 22 p
- 6. Egjarreta 19 p

Asteburuko jardunaldia

NAPARBIER - ZALDUA

(Apirilaren 6an)

EGJARRETA - BIDEZARRA

(Apirilaren 6an)

Areto futbola

OHOREZKO MAILA

21. JARDUNALDIA

SANTIAGO FUTSAL 4 - TRIMAN NAV. XOTA 1

Bukaerara arte parez pare aritu ziren bi taldeak, bana berdinduta, baina bukaeran 5. faltagatik Rafa Usin kaleratu zuen arbitroak eta horrek gauzak erraztu zituzkien Santiagori, 3 gol sartu baitzituen segidan. Imanol Arregi entrenatzailea kexu azaldu zuen arbitroen lanarekin. "Bana berdinduta, guk dominatzen eta falta zalantzarri batengatik Rafa kalera. Hor bukatu da lehia" azaldu zuen Irurtzungo teknikoak.

Sailkapena >>

- 1. Bartzelona 52 p
- 6. Trimán Navarra Xota 37 p

21. jardunaldia

TRIMAN NAV. XOTA - AZKAR LUGO

(Apirilaren 5ean, 20:30ean, Anaitasunan)

Saskibaloia

EMAKUMEZKOEN SENIOR MAILA

2. MAILA AUTONOMIKOA. 2. FASEA

ALTSASU CBASK-ek atsedena zuen.

Sailkapena >>

- 1. Navarra Villoslada 11+5 p
- 9. Altsasu CBASK 5-5 p

Hurrengo jardunaldia

ALTSASU CBASK - PAZ DE ZIGANDA

(apirilaren 6an, 16:00etan, Altsasun)

GIZONEZKOEN JUNIOR MAILA

1. MAILA AUTONOMIKOA

SDR ARENAS 89 - ALTSASU CBASK 40.

Sailkapena >>

- 1. Burlata A 40+20 p
- 11. Altsasu CBASK 21-14 p

Hurrengo jardunaldia (2. fasea hasiko da. 9-11 postuak)

LICEO MONJARDIN A - ALTSASU CBASK

(Apirilaren 13an, 18:00etan)

*OHARRA: Informazio +: www.guaixe.net

Herri kirolak

NAFARROAKO HERRI KIROL JOLASAK

Andra Mari eta Iñigo Aritza txapeldun



Igandean Nafarroako Herri Kirol Jolasen finala jokatu zen Larrainzarren. Proba konbinatuaren finalak eta sokatira finalak jokatu ziren, eta Sakanako 3 talde iritsi ziren finalerara: Andra Mari ikastola, Andra Maritik sortutako Putterri eta Iñigo Aritza ikastola.

Sakanako taldeek herri kirolean puntan daudela erakutsi dute txapelketan barna. Proba konbina-

tuan Andra Mariko taldeak irabazi zuen kimuen mailako txapelketa eta Putterri 4.a izan zen, eta hurren mailan Andra Mari izan zen 2.a, Berriozarren atzetik, eta Iñigo Aritza 3.a. Kadeteetan Basaburua nagusitu zitzaion Andra Mariri. Sokatiran hurren mailako txapelketa Iñigo Aritzak irabazi zuen. Andra Mari 3.a sailkatu zen eta Putterri 5.a. Kadeteetan Andra

Nafarroako Herri Kirol Jolasen finalak

Proba konbinatuak

Kimuak: 1.Andra Mari (6:48). 2.Araxes (7:01). 3.BKE (7:06). 4.Putterri (7:11).

Haurrak: 1.Berriozar (8:29). 2.Andra Mari (8:44). 3.Iñigo Aritza (9:12). 4.Basaburua (9:45).

Kadeteak: 1.Basaburua (18 puntu). 2.Andra Mari (14 puntu). 3.Berriozar (9 puntu). 4.Ultzama (9 puntu).

Sokatira

Haurrak (480 kg): 1.Iñigo Aritza (22,5 puntu). 2.Berriozar (19,5 p.). 3.Andra Mari (18 p.). 4.Araxes (10p.). 5.Putterri (4p.). **Kadeteak (540 kg):** 1.Berriozar (12,5 puntu). 2.Andra Mari (12,5 p.). 3.Ultzama (5 p.).

Mari 2.a sailkatu zen, Berriozar txapeldunarekin puntutara berdinduta. Zorionak guztiei.

Mendi lasterketak**Iñaki Martiarena 3.a Sara Korrika Trailen**

Sakandarrak Sara Korrika Trailean (25 km):

1.	Oier Ariznabarreta	1:59:12
3.	Iñaki Martiarena	2:06:25
15.	Jose Luis Beraza	2:16:06
19.	Jose Jabier Maiza	2:19:12
44.	Gerendiain	2:27:17
56.	Aritz Munarriz	2:30:15
61.	Patxi Albeniz	2:32:12
461.	Peio Goikoetxea	4:06:46

Mendi lasterketek zale asko dituzte Sakanan eta gure korrikalariak puntan ikusten hasiak gara. Igandean jokatuak Sara Korrika Trail ikusgarri (25 km) 479 korrikalari iritsi ziren helmugara, Oier Ariznabarreta buru (1:59:12). Aralar Mendi taldeko Iñaki Martiarena uhartearrak sekulako lasterketa egin zuen eta 3.a heldu zen helmugara (2:06:25). Gainontzeko sakandarrak ere txukun ibili ziren.

ORIKO PROBA

Sakandarrak Orion (20 km, 100 m desnibela):

1.	Ionut Zinca	1:30:27
45.	Karlos Zelaia	1:51:15
171.	Sergio Goñi	2:10:37
177.	David Oroz	2:11:37
213.	Fernando Ariztegi	2:16:57
301.	Francisco Javier Vilar	2:39:13

Ionut Zinca irabazi zuen Orioko mendi lasterketa (20 km, 1000 m desnibela). 1:30:27 izan zen bere denbora. Hainbat sakandar aritu ziren, lehen Karlos Zelaia (1:51:15).

Txirindularitza**Egoi Martinez Euskal Herriko Itzulian**

Astelehenean hasiko den Euskal Herriko Itzulian Egoi Martinez (Euskaltel-Euskadi) ariko da. Samuel Sanchez eta Igor Anton talde buruak laguntzea izango da etxarriarren lana. Contador eta Sanchez dira faborito nagusiak. Bestalde, larunbateko Indurain Sari Nagusian, igandeko Errioxako Itzulian eta asteleheneko Amorebietako klasikoan Pablo Urtasun, Gorka Verdugo eta Jorge Azanza ariko dira.

Apirilaren 7an kadeteek proba dute Tafallan, juniorrek Beran eta afizionatuek Eibarren, Balentziaga Memoriala, hain zuzen.

IBAI AZURMENDI 4.A ALTSASUKO 54. ERRAMU TROFEOAN

Sociedad Deportiva Alsasua antolatuta, igandean jokatu zen junior mailako 54. Erramu Saria (79 km). Castillo de Onda taldeko Juan Camachok irabazi zuen lasterketa (2:10:58). Burundako Quesos Albeniz taldeko Ibai Azurmendi 4.a izan zen, (2:13:53), eta Aralar Inter Sport taldeko Odei Juango 26.a (2:15:42).

OTXOA ETA IRIGOEN CASCANTEKO BTT PROBAN

Carlos Colomak (WildWolf-Trek) irabazi zuen Cascanteko BTT lasterketa (1:49:28), segundo batera Patxi Cia eta 6. segundora Diego Latasa sartuta. Mikel Otxoa 38.a izan zen (2:11:28), 23. urtez azpikoan 6.a, eta Mikel Irigoien 61.a (2:04:48), 23. urtez azpikoan 10.a.

Mendia**Hiru mendizerrak batzera**

ALTSASUKO MENDIGOIZALEAK TALDEAK ANTOLATUTAKO MENDI IBILBIDEA APIRILAREN 6AN ABIATUKO DA, 7:00 ETAN. BI IBILBIDE EGITEKO AUKERA DAGO ETA 750 MENDIZALERENDAKO HORNIDURA PRESTATU DUTE

Altsasuko Mendigoizaleak taldeko kideak lanean daude buru-belarri, apirilaren 6rako antolatu duten IV. Hiru Mendi Zerrak mendibilaldia prestatzen. Urtetik urtera gora egin du ibilaldiak. Lehen edizioan 240 mendizalek parte hartu zuten, iaz 720 izan ziren, eta aurten 750 mendizalerendako hornidura prestatu dute. Izena ematea zabalik dago www.altsasukomendigoizaleak.com webgunean, igandera arte. Altsasuko ibilaldia dagoeneko finkatuta dago mendizaleen egutegietan, eta horregatik kontentua daude Altsasun. Euskal Herriko mendizaleez gain, Katalunia, Madril eta Frantziako parte-hartzaileak egon izan dira.

Altsasukoa bi mendi ibilbideen zirkuituan sartuta dago: Nafarroakoan eta Euskal Herrikoan. Ibilbide ez lehiakorra da. Helburua mendizaleentzako pisua eta Altsasu ingurua ezagutaraztea da. Ibilbideak Altsasu inguruko bazter eder eta anitzak ezagutzeko parada eskaintzen du: Urbasako malkorrak, Bargagaingo Sakanako panoramika ederra, Altzania-ko pagadiak, Balankalekuko ikuspegi politikak, Aralar trikuharrak eta Sarabe eta San Pedroko paisaia lasagarriak.

Bi ibilbide, 48 km eta 26 km

Mendizaleek bi ibilbideren artean hautatzeko aukera izanen dute: ibilbide handia, 48 km-koa eta 2.725 metrotako desnibel metatua



Andres Bengoetxea eta Aitziber Etxaiz, 3 mendizerrak mendibilaldia aurkezten.

duena; eta ibilbide txikia, 26 kilometrokoa eta 1.307 metrotako desnibelekoa. Ibilbide laburrak gutxi gora behera 7-8 orduko lana eskatzen du eta martxa handiaren estimazioa 11 orduko gorakoa da.

Bi ibilbideak Altsasuko Gure Etxean hasiko dira, 7:00etan. Antolakuntza 6:30ean hasiko da dortsalak banatzen. Mendizale guztiak Urdiainera joko dute. Urdiaindik Urbasa-Andiara igoko dira, Portuazpitik, eta aipatu natur parkea zeharkatuko dute, Bargagaing eta Gainsolera helduz. Handik Ziordia herriraino jaitsiko dira. Ibilbide motza aukeratzeko dutenak partzelarietatik barna Altsasura

ailegatuko dira, eta, aldiz, ibilbide luzea hautatzen dutenak Kipur lar igo eta Alzaniako mendizerrara ailegatuko dira. Orobe gainditu eta gero Sorozarreta jaitsi eta segidan Balankaleku eta Intxurburu igoko dituzte. Handik jaitserari ekingo diote eta Sarabetik eta San Pedrotik barna Altsasuko Gure Etxeara helduko dira.

Zerbitzu guztiak

Ibilbide guztia ongi markatuta egonen da eta gune konfliktibotan laguntza egonen da eskura. 5 kontrol eta jaki eta edari hornidura gune izango dira, Gure Etxean, Urbasan, Ziordia herrian, Sorozar-

Izena ematea:

www.altsasukomendigoizaleak.com

Martxoaren 31ra arte, Altsasuko Mendigoizaleen webgunean. Prezioa: 13 euro. Antolakuntzak prestatutako 750 tokiak bete ez badira, egunean bertan izena emateko aukera egonen da, proba hasi baino ordu erdi lehenago, Gure Etxean. Prezioa: 15 euro.

rretan eta Saraben. Horretaz gain, ur hornidura egongo da beste hainbat tokitan. Zer jan eta zer edan ez da faltako; famatuak egin dira antolatzaileek eskaintako hamaiketakoak. Ibilbide hauek ez dira lehiatzekoak, eta hortaz, antolakuntzak ez du sailkapen ofizialik banatuko, baina mendizaleek nahi izanez gero kontrolatan hartutako denbora erreferentziak jasotzeko aukera izango dute.

Guztia prestatzeko Altsasuko Mendigoizaleak klubeko kideak eta boluntarioak ariko dira lanean, 60 pertsona inguru, 10 lantaldetan banatuta. Ibilbidea antolatu ahal izateko euren laguntza eman duten babesle eta laguntzaileei eskerrak eman nahi dizkiete antolatzaileek. Klubeko kideek egunean bertan ibilbidea ezin dutenez egin, apirilaren 28an hitzordua jarri dute Urbasa, Altzania eta Aralar hiru mendizerrak lotzeko.

Frontenis**Neskak, frontenisaren ordua!**

MANK-EK SAKANAKO EMAKUMEEN FRONTENIS TXAPELKETA ANTOLATU DU. IZENA EMATEA ZABALIK DAGO

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak, Etxarriko Gure Pilota klubaren eta Olaztiko Pala arduradunen laguntzarekin, Sakanako Emakumeen Frontenis Txapelketa antolatu du. Txapelketa apirilaren 13tik aurrera jokatu da, ostiraletan eta larunbatetan arratsalde eta igandetan goizez. Ondoko frontoitan jokatu da: Olazti, Etxarri Aranatz eta Ergoiena.

Txapelketa herrikoia da, eta, hortaz, emakume guztiak animatu nahi ditu Mankomunitateko

Kirol Zerbitzuak. Orain arte oso harrera ona izan du frontenis txapelketak, eta aurten ere hala izatean nahiko lukete. 3 mailatan jokatu da: 1. maila, 2. maila eta 3. maila (hasi berriendako eta helduendako).

Izena emateko

Apirilaren 8ra arte: 948 464 866 edo kirolak@sakana-mank.com (Amaia, Mank), 638 138 231 (Migel, Etxarri Aranatz) edo 661 613 982 (Fermin, Olazti). Bikote bakoitzak 20 euro ordaindu beharko ditu.

VI. HIRU MENDIZERRAK 2013

ALTSASUKO MENDIGOIZALEAK

GOBERNO DE NAVARRA

BALANKALEKU

INTXURBURU

SOZARRETA

SARABE

ALTZANIA

KIPULAR

ALTSASU

URDIAIN

URDIAIN URBASA

URBASA ZIORDIA

URBASA URBASA

AGASTEIZ

ZIORDIA

OLAZTI

BARGAGAIN

URBASA

URBASA

Gertu FERRETERIA ALTSASU

URDIAIN

URDIAIN

LOPEZ DE GOIKOETXEA

Cruz Roja

PANIFICADORA AMAYA ALTSASU

COVIRAN

la Caixa

Netto

EROSKI

FRANCISCO JAVIER URIBE BIZOYEN

ALTSASU BARKAZEN

GARCIA KINIZEN S.

ORTUÑO

ORGANIZACION DEL PAPA

Tronboia nagusi



Hala izan zen asteburuan Altsasuko Iortia kultur gunean. Haize Berriak Bandak eta Nafarroako Banden Federazioak antolatutako ikastaroan 17 parte hartzaile izan ziren. Guztiak ere izen handiko tronboi-joleekin trebatzen aritu ondoren ase beterik gel-

ditu ziren. Gero Haize Berriak bandarekin eta Becky Smith tronboi-jole ingelesarekin jotzeko aukera izan zuten. Antolatzaileak ikastaroarekin eta kontzertuarekin pozik gelditu dira. Aurrera begira sorpresak iragarri dituzte.

Zeluloideztatu nahi duten letrak

Bere filma izatea nahi duen gidoiaren nondik norakoak luze aletu zituen Joseba Salegik ostiralean Olatzagutiko kultur etxean. Altsasuarrak gidoiak jaso duen istorioaren genesis bere inspirazioetan eta bizipenetan kokatu zuen. Gerra ostean estatuan gelditu behar

izan zuten intelektualak; bizitza gelditu zaiela dirudien pertsonak; etsaigoak; familia harremanak eta pertsonaien arteko erakarpena, elementu horiek osatzen dute gidioa. Karibea eta Nafarroa artean kokatzen den istorioa da. [+www.guaixe.net](http://www.guaixe.net)

Haurrendako Suarezen berria

Asteartean aurkeztu zuen Aizkorri argitaletxeak Castillo Suarezen haur literaturako azken lana: *Erikaren ttilikak*. Sortzaile altsasuarrak haurrendako idatzi duen bosgarren lana da aurkeztu berri dena. Suarezen testuari Estibalitz Jalon ilustratzaileak jarri dizkio irudiak.

Suarezek ilea harro duen nes-

kato baten istorioa kontatzen du liburuan. Lagunek iseka egiten zioten horregatik. Erikari, orduan, aurpegia ilundu egiten zitzaion. Neskatikoak orduan negar egiten zuen, eta negar ttilikak poliki-poliki irristatzen zitzaizkion masailetatik behera: ttik, ttik, ttik! Baina Erikak ez zituen inoiz malkoak xukatzen. Haren bidea egiten uzten zien bal-



koiko loreontzietan pausatzen ziren arte.

[+www.guaixe.net](http://www.guaixe.net)

gertutik >>

Castillo Suarez

Idazlea

Erikaren ttilikak. Zer dira ttilikak? Nondik dator hitza?

Itxaro Bordari lapurtu diodan hitza da, hobeki esan, Itxaronen aitari. Berak Ardo ttilika bat esamoldea erabiltzen zuen maiz. Itxarok turrustatxoaren baliokide gisa erabiltzen duela esan zidan –“Xorrito, esan zidan berak, zehazki–”. Nik, ordea, beste zentzu bat eman diot, malkoarena alegia. Izan ere, Erikak duen bereizgarrietako bat da ez dituela malkoak xukatzen eta bere bidea egiten uzten diela. Malkoek, erortzerakoan Ttik, ttik, ttik! egiten dute. Horiek dira, hain zuzen, ttilikak.

Krispeta hegalarrien aurkezpenean amonaren haize-kruspetak aipatu zenituen. Oraingoan

**ere abiapuntu "autobiografikoa" du?**

Enkarguzko lan bat izan zen. Ipuin hau galegoz plazaratu zen Durangoko Azokan Galizia herrialde gonbidatua izan zenean. Altsasuko festetan etorri zitzaidan ideia, ile harroa, sarria eta kizkurra zuen neska bat ikusi nuenean. Erika ere horrelakoa da.

Gehienetan neskak dituzu protagonista, ez?

Bai, egia da, Gainera, gauza bitxi bat gertatu zitzaidan behin. Krispeta hegalarriak liburuko protagonistari ez nion izenik eman, baina

nik buruan neukan neska zela. Marraskilariak, ordea, mutila marraztu zuen. Esan gabe doa: marrazkilaria gizonezkoa da.

Poesiazko azken liburuarekin kritika onak jaso ondoren, haur literatura berriz. 5. alea. Bide bat urratu duzu 3 urtetan, ez?

Bai, hori hala da. Azkeneko urteetan jasotzen ari naiz kritikarik onenak, baina nik esaten dut ISBN asko ditudala eta duela urte asko atera zela lehena. Une honetan Arbizuko erre zeneko garaian kokatutako ipuin batekin ari naiz, urteurrenaren kariatara plazaratu nahi duguna. Poesiaren aldean haur literatura da? Dibertitzeko modu bat. Egurkada pertsonal eta profesionaletatik indarturik ateratzeko modu bat. Haur literaturaren aldean poesia da? Idazle egiten nauen generoa. Izan ere, poeta hobea naiz narraztailea baino. Hori halada# idatziko lukete twitter zaleek.

bazterretik

Andoni Igoa

Passivhaus

Aspaldi honetan gure gizarteak energia aurreztu behar dela nabaritu eta berarenerabilpena efizientea izan behar dela ikusi du. Nahiz eta oraindik ibilbide luzea geratu, jendea honetaz gero eta gehiago kontzientziazten ari da.

Gure gizartearen jasangarritasuna lortzeko beharrezkoa da ulertzea, jakintsuena eta aldi berean merkeena soilik behar den energia xahutzea dela. Honen ondorioz erakuntzan passivhaus kontzeptua sartzen da, hau da, kontsumo energetiko ia nulua duen eraikuntza. Eraikin pasiboak barne erosotasun altu bat, energi kontsumo baxu bate-

kin konbinatzen du. Esan dezakegu eraikin mota hauen efizientzia energetikoa maximoa dela: Orientazioa eta itxiturak kontutan izaten eta eguzki energia ahal den hain aprobetxatzen, horrela bere demanda energetikoa izugarri gutxitzea lortu eta barruko airearen kalitatea asko hobetzen da. Honetarako eraikinak isolamendu handia izan behar du, zubi termikoak eragotzi, aire infiltrazioak ahal diren neurrian gutxitu, leiho eta ateak kalitate handikoak jarri eta eguzkiaren aprobetxamendua ezin hobea izan behar da.

Oinarri hauek ongi erabiliz gero, passivhaus baten klimatizazioak behar duen energia hain txikia da,

20 m²-ko logela bat 4 pertsonen berotasunarekin berotu baitaiteke negu bizian.

Vienan ezagutu nuen passivhaus baten adibidea jarriko dut. Etxe honen egitura eta itxitura egurrezkoa zen eta fatxada eta teilatua lamina iragazgaitzeko berberekin estalirik zegoen. Honez gain, isolamendu on bat eta barruan bero trukatzailerak batzuk ipini zitkioten. Etxe honetan pertsona asko sartuz gero leihoak ireki behar izaten ziren bero handiegia lortzen baitzen barruan. Leihoen kostua eraikuntza osoaren herena izan zela esan zigun jabeak, baina aurrerantzean energi gastuaren murrizketa izugarria izango da.

Lazkoz onena



Xabier Silveirak (588 puntu) Nafarroako Bertsolari Txapelketako zazpigarren txapelak jantzi zuen larunbatean. Eneko Lazkozek bosgarren bukatu zuen (539,5), udazkenean hasiko den Euskal Herriko Txapelketa Nagusirako txartela lortzeko 2 puntu eskasera gelditu zen. Etxarriarrak txapelketa ederra borobiltzeko sekula final batean lortu duen posturik onena ere eskuratu zuen (2010ean 6. eta 2011n 7.).

Giro ederrean, 1.500 bertsoza-

le bildu ziren Anaitasunako finalean Zortzi finalistek maila handiko saioa eskaini zuten. Lazkozek ale ederrak utzi zituen. Serio jardun behar izan zuen Erika Lagomarekin, haurra kendu zieten bikote baten larruan. Eta umoretsu, berriz, Julio Sotorekin parranda eta gero ipurdian tatuaje banarekin esnatu ondoren. Lazkoz etengabe animatu zuten etxarriar zaletuen babesa izan zuen Anaitasunak, zalegoen artean zaratsuenak izan ziren.

Salazarren eskultura Donostiako berreraikuntza gogorarazteko

Martxoaren 16an mustu zuten Donostiako Alde Zaharrean, Valle Lersundi plazan (Kainoietan), Dora Salazarrek egindako eskultura. Salazarrek egindako eskulturak emakume bat adreiluak eramaten irudikatzen du, hiriaren berreraikitzearen sinbolo bezala. Izan ere, 1813an, emakumeak izan ziren ingelesek eta portugaldarrek Donostiaren hartze eta setioan indarkeria eta krudelkeri handiena jasan zutenak, garaiko lekukoek adierazten duten bezala. Ostera, emakumeak izan ziren beren ausardi eta erabakiarekin hiria defendatu, egitura soziala mantendu, eta gerora arrakasta izan zuten negozioetan ekin zutenak. Guztia oroitarazteko jarri zen Salazarren eskultura.

Salazarrek burdinazko eskultura egin zuen. Altsasuarrak bere horretan jarri zuen eskultura kalean eta lehen euriekin burdina her-



doiltzera jo du. Salazarrek prozesu hori jendaurrean gertatzea nahi izan du. Hala, hasierako metal koloreak galdu eta gaur egun marroia da eskultura, burdin herdoildua. Euriteak pasa hala kolorea uniformeagoa izanen da.

Eskulturarekin batera, horman, plaka bat jarri da, Maialen Lujanbioren bertsoarekin, duela 200 urte beren ahalegin eta ausardiarekin hiria berreraikitzen lagundu zuten pertsonengan inspiratuta.

Kaotiko, gogorturik

EH Calling izenburua eman dio Kaotiko taldeak bere azken lanari. The Clash taldearen *London Calling* diskoari omen egin nahi izan dio Xabier Aldazen taldeak. “Bigarren mundu gerran, hanzela, eusten zobiela esateko BBCK zabaltzen zen deye zan *London Calling*. *EH Calling* titulu aproposa zala pentsa giñuben. Hemen pausu batzuk eman die, etorkizune aldatu nehi da. Batzuen partes ahalein handiye eitten ai da, bestiatzun partes ez. Hemen gaude ta bierko ta entzun berko dakigu”.

Etxarriko batera joleak **Beleixe Irratian (FM 107,3)** aitortu duenez, lan berrian “gu estilo barruben, nabaitzen da soñube gogortu ein diaula eta abestiyek bastante azkartu ttugula”. Diskoaren aurreneko abestitik adierazi nahi izan du hori Kaotikok. Horretarako, Sako Jimmy (gitarra) izan du talde-akekoizle, “hardcore musiken eta adittube dalako”. Taldearendako gustuko esperientzia izan dela aitortu du Aldazek **Beleixe Irratian (FM 107,3)**. “Geñaa biak sekule ez zen punk-rock taldiarekin halako lanik ein. Beti izan die metal ta hardcore taldiek”.

Etxarriarrak azaldu duenez, nahiko ahalegin eskatu die lan berriak: “nehiko tarea jarri dugu kabron horrek”. Etxean eta lokalean ordu asko sartu dituzte Kaotikokoak. Diskoaren pareko soinua zuen maketa ere egin zuten. “Lan asko. Beye emaitze, guteko borobille da” esan zuen Aldazek Bele-



xe Irratian (FM 107,3).

13 kanta

Kaotikok bere letretan beti ukitu ditu gizarte gaiak eta lan berria ez da salbuespena. “Disko hontan, nik uste letrak zuzenokuek die-la. Jotzen atiatzen dan agresibedioi de idazten agi da”. SA-ko Juan, Fermin Muguruza eta Xabier Silveira izan dituzte laguntzaile Kaotikokoek diskoa ontzean. Aldazen esanetan “Kaotiko beti talde mugatube izen dua; hiru akorde ta nehiko. Urtiekin esperientzia hartzen dezu ta teknologiek aurria diyuezela, aukera geyo dazkazu abestiyek hobetzeko. Mugek izenda de dazkazu abestiyek hobetzeko aukera”.

Taldearen 12 urteko ibilbidean zortzigarren diskoa da (estu-

dioko sei eta zuzeneko bi). “Diskue bi urteti behin atiatzen diau. Jendie zutes ahazten ba gio gora eitteko, iguel zelle dakazu. Gutes ahazten ez dogu uzten jendiai”. Horregatik, disko artean urte erdi inguruko atsedendia hartu ondoren ekiten dio Kaotikok berriro lanari.

Aldazek esan duenez, “gu ez ga betiko; diskuek grabatzeko eta birek eitteko aukerak ez ttugu beti urai ber, hori buketzen fanako da. Ordubean, al diaun biyertien nibel altu betien yoten seietzen ga”. Penintsula guztian barna ibiliko da taldea biran, kantu berri eta zaharrak dituen errepertorioarekin. Bestalde, berriki Londonen izandako kontzertua bideoklipa grabatzeko baliatu zuen Kaotikok.



Kantari txikiak txukun

Larunbatean ospatu zen aurtengo Nafarroako Haur Kantarien aurreneko jaialdia. Artikako kultur etxeraino Lakuntzako Luis Fuentes eskolako hiru talde joan ziren kantatzera. Beste bi jaialdi izanen dira apirilean, 13an Tuteran eta 27an Berriozarren. Iruñerrikoan Lakuntzako Saansastin musika eskolako 3 talde ariko dira kantuan.

ERAKUSKETA

100ta SULTZAKOIA. Frontoiko zeharbidia, z/g. 31300. Altsasu - 945664177 - 100ta@altsasu.net - www.facebook.com/100ta

APIRILAK 2-21

OIHANETIK ITSASORA

ALBAOLA ELKARTEA

Adi egon!
Erakusketan osatzeko hainbat jardueran antolatzen ari gara: apaziaz obeto dokumentalaren proiektzioa, hitzaldia, mendir itzera gidatua...

BLACKIE & KANUTO
IGANDEA 31 17:00

UN PLAN PERFECTO
OSTIRALA 29 22:00 IGANDEA 31 20:10

G

asteko >> : eguraldia

osteguna	ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena
euria: 58%	euria: 89%	euria: 88%	euria: 53%	euria: 83%	euria: 50%	euria: 30%
Min: 7 Max: 13	Min: 11 Max: 14	Min: 7 Max: 13	Min: 5 Max: 14	Min: 8 Max: 13	Min: 6 Max: 13	Min: 5 Max: 13

: temperatura >>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m ²
Irurtzun	-	-	-
Etxarri A.	20.2	-0.8	34.4
Altsasu	17.5	1	36.3
Aralar	8.9	-2	36.8
Urbasa	15	-3	40.2

: ilargiaren aldia >>

ilbehera	ilberri	ilgora	iibete
3	10	18	25

Acrylcolor

SISTEMA BERRIA

KOLOREA

GEHIAGO ETA HOBE

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

EGOKI

VENTANAS PVC LEIHOAK

Tel: 948 563 253

Arkinorru Industrialdea, OLAZTI

Erakusketa: Olite kalea 16 IRUÑEA

www.ventanasegoki.com

banaketa

- Enkartzak Guaixen (4.500 ebetan Sakanan)
- Buzoneoa

itzulpenak

- gaztelera-euskara
- euskara-gaztelera

Guaixe

KOMUNIKAZIOA

Foru plaza 23-1
31800 Altsasu (Nafarroa)
948 564 975-948 562 107

>> 11

galdera

Cristina Lopez de Aguleta

Ekin dendako jabe ohia

Testua: Erkuden Ruiz Barroso



Eva Azkarate, Cristina Lopez de Aguleta eta Juana Mari Asurabarrena.

Guaixe erakusleho lehiaketa

Non daude aste honetako Guaixearen azalak?

Non egon dira marsuko Guaixearen azalak?

409. Guaixea: Urrutia harategia eta Arkupe.

410. Guaixea: Lorena Fruta denda, Lopez de Goikoetxea harategia eta Txukun.

411. Guaixea: Arruazuko ostalua, Urgain albaitaritzza eta Tipi tapa oinetakoak.

412. Guaixea: Ederne ileapindegia, Hosto Gorri, Txikitxo eta Iker kirolak.

Marsuko saritua: Naiara Zia

Bilatu Beleixeguaixe txartela duten Sakanako komertzioetako erakuslehoetan Guaixearen asteroko azala

Hilabete akaberan Guaixea egon den komertzio baten izena bidali

zorion@guaixe.net helbidera edo Bierriken bulegora ekarri

Foru plaza 23, Altsasu

Saria

Komertzioek emandako produktuez osatutako lotea

1- Ekin dendako jabea izan zara 33 urtez eta aurten utzi duzu. Nola sentitzen zara?
Pixkanaka onartu dut. Nahiz eta dena oso azkar gertatu den, ongi gelditu naiz. Baina pena ematen du urte asko izan direlako eta oso gustura egon naizelako.

2- Beste pertsona batek hartuko du. Horrek poza ematen dizu? Pena gutxiago ematen du, bai. Pentsatzen nuenean ezin izango zuela inork hartu, pena handiagoa ematen zidan.

3- Hala ere, dendatik pasako zara?
Uzten badidate bai, noski. Lehenengo egunetan Evarekin egongo naiz, laguntzen. Badakit berak bakarrik oso ongi egingo duela.

4- Nola aldatu da moda urte hauetan?
Moda eta jendea aldatu dira. Dena aldatu da. Denda ireki nuenean Altsasuk herri itxura gehiago zuen. Orain dena zabaldu da: hiri-buruetara, merkataritza gune handietara...

5- Zeintzuk dira denda txiki baten eta merkataritza gune handi bateko denda baten arteko ezberdintasunak?
Abantailak eta desabantailak ditu. Denda txiki batean aholkuak ematen ditugu. Dena gehiago zaintzen dugu. Multinazionaletan arropa ikusten duzu, hartzen duzu eta erosten duzu. Hemen estilistak gara ere. Ongi gelditzen zaiela esaten diegu, arropa konpontzen dugu, eta abar. Pertsonalizatuagoa da dena, arropa pertsonalizatzen dugu ere. Hori da munstro handi horietatik defenditzeko modua, hori da formula.

6- Nola janzten da Sakanako jendea?
Nik uste hobe janzten dela. 1980an ireki nuenean nik uste herri txikiagoaren itxura zuela, eta jendea ez zela janzkeragatik hainbeste ohartzen. Orain nik uste jendeak gehiago zaintzen duela janzkera eta gehiagotan aldatzen duela arropa. Aspektu horretan asko garatu gara.

7- Nolako da Ekinen aurkitu daitekeen arropa?
Maila ekonomikoertaina dutenentzako arropa da. 30 eta 60 urte inguruko emakumeentzat. Nik orain arte hori saldu dut. Orain Evak nik nuen linearekin jarraituko du eta gazteentzako arropa ere ekarriko du. Bere linearekin hasiko da.

8- Ekonomia krisiak nola eragin du dendan?
Askotan hitz egiten da krisiari buruz. Baina jendea ongi janzten da. Krisi asko pasatu ditugu. Ez dira hain gogorrak izan, baina krisi asko jasan ditugu. Azken urte honetan salmentak jaitsi dira. Baina beno, pixkanaka eta inguruko herrietako jendea ireratu dugu. Enpresak ixten hasi zirenean salmentak jaisten hasi ziren ere. Urte honek beldur gehiago ematen dit, oso urte gogorra izan delako. Baina momentu arte ongi defenditu naiz.

9- Zergatik ireki zenuen Ekin?
Denda gustatzen zitzaidan, baita arropa ere. Nik uste arropa dena ireki dugun arrazoia nagusia hori dela. Nik beste lan bat nuen, baina utzi nuen eta autonomo jarri nintzen. Sakrifizio asko egin behar dituzu autonomo

moduan. 2.000 urtetik Juana Mari Asurabarrenaren laguntza izan dut, eta laguntza handia izan da. Askatasun gehiago izan dut, denda bakarrik eramatea oso zaila delako. Ireki nuenean salmentak egitea kostatzen zen, baina hasi nintzen, eta beste herrietatik jendea etortzen hasi zen... Herrietako jendea oso garrantzitsua izan da: Etxarrikoa, Urdiangoa... Juana Mariaren eragina oso garrantzitsua izan da; Sakanako jende asko ekarri zuen. Orain beste gauza batzuk egiteko gogoak ditut.

10- Denda honen beharra ikusten zenuen?
Ireki nuenean bai. Gazteentzako arropan hutsune bat zegoela ikusi nuen. Nik jarri nuen Altsasun gazteentzako linea. Arropa Donostiatik ekartzen dut, uste dudalako Donostian hemengo jendearen antzera janzten dela eta klima ere antzekoa dela. Marka batzuegatik izan naiz ezaguna. Evak marka horiekin jarraituko du eta berriak ekarriko ditu ere.

11- Hainbat emakume belaunaldi jantzi dituzu. Bezeroen fidelotasuna izango duzu, ezta?
Bai, jakina. 26 urtekin hasi nintzen, eta lehen neuzkan bezeroak ez dira orain ditudanak. Baina denda nirekin batera garatu da. Sakanako herrietako bezeroak ere oso garrantzitsuak izan dira. Oso bezero fidelak izan dira. Urte hauetan asko disfrutatu dut eta hainbeste jantzi izanak asko poztzen nau. Evak ahalik eta hoberekin egingo du, eta espero dut nirekin izandako maitasuna berarekin izatea.